

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Euskal Autonomia
Erkidegoaren Administrazio
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración
General de la Comunidad
Autónoma del País Vasco**

2018





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea	12
III.2 Langileria-gastuak.....	12
III.3 Dirulaguntzak	13
III.4 Kontratazioa.....	15
III.4.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak.....	15
III.4.2 2018an esleitutako espedienteak.....	16
III.4.3 Kontratu txikiak.....	17
III.5 Finantza aktiboen bariazioa	17
III.6 Abalak.....	18
III.7 Beste alderdi batzuk	18
IV.FINANTZAREN ANALISIA.....	19
V. 2018KO EKITALDIKO KONTUAK.....	22
ERANSKINAK	29
A.1 Araudi ezargarria.....	29
A.2 Aurrekontuko aldaketak	30
A.3 Langileria-gastuak.....	31
A.4 Funtzionamendu-gastuak	34
A.5 Transferentziak eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoak	35
A.6 Inbertsio errealak.....	37
A.7 Finantza-aktiboen gehikuntza	39
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak	40
A.9 Transferentzia arruntengatiko sarrerak.....	41
A.10 Kapital transferentziengatiko sarrerak.....	42
A.11 Finantza-aktiboen gutxitzea	42
A.12 Kobratzeke eta ordaintzeke dauden hondarrak	43



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 Diruzaintza	44
A.14 Aurrekontuz kanpoko eragiketak	44
A.15 Zor publikoa	46
A.16 Emandako abalak	49
A.17 Konpromiso-kredituak	50
A.18 Kontratazioa	51
A.19 Dirulaguntzen analisia	57
A.20 Kontabilitate publikoa	60
A.21 Lurraldeka bereizitako gastuak eta sarrerak	62
ALEGAZIOAK	67
ABREVIATURAS	85
I. INTRODUCCIÓN	87
II. OPINIÓN	88
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	88
II.2 Opinión sobre la cuenta de la administración general	89
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	90
III.1 Presupuestos y contabilidad	90
III.2 Gastos de personal	90
III.3 Subvenciones	91
III.4 Contratación	93
III.4.1 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	93
III.4.2 Expedientes adjudicados en 2018	94
III.4.3 Contratos menores	95
III.5 Variación de activos financieros	95
III.6 Avales	96
III.7 Otros aspectos	96
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	97
V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2018	100



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ANEXOS	107
A.1 Normativa aplicable	107
A.2 Modificaciones presupuestarias	108
A.3 Gastos de personal	109
A.4 Gastos de funcionamiento	112
A.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital	113
A.6 Inversiones reales	115
A.7 Aumento de activos financieros	117
A.8 Tasas y otros ingresos	118
A.9 Ingresos por transferencias corrientes	119
A.10 Ingresos por transferencias de capital	120
A.11 Disminución de activos financieros	120
A.12 Residuos pendientes de cobro y pago	121
A.13 Tesorería	122
A.14 Operaciones extrapresupuestarias	122
A.15 Deuda pública	124
A.16 Avales concedidos	127
A.17 Créditos de compromiso	128
A.18 Contratación	129
A.19 Análisis de subvenciones	135
A.20 Contabilidad pública	138
A.21 Gastos e ingresos territorializados	140
ALEGACIONES	145

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 26a
Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2020



LABURDURAK

ADIF	Trenbideetako azpiegituren administratzailea.
AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
APAPEL	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
DLO	38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa; Dirulaguntzen Lege Orokorra.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEAOL	5/2017 Legea, abenduaren 22koa, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana, 2012ko ekainaren 25eko Agindu bidez onartutakoa, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena.
EAETB	1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina Onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EGF	Europako Gizarte Funtsa.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
EHTSB	Euskal Herriko Trenbide Sare berria.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
EIBM	Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa.
EKB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
EKKLTB	2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
ETE	Enpresa txiki eta ertainak.
ETS	Euskal Trenbide Sarea.
GKE	Gobernu Kontseiluaren Erabakia.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
IEB	Inbertsioen Europako Bankua.



LLHH	Lurralde Historikoak.
SPKL (2017)	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
WISESA	Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), berau arautzen duen 1/1988 Legean eta 2018ko ekitaldirako Urteko Lan Programan xedatutakoaren arabera, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txosten hau egin du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ea aurrekontuaren, zorpetzearen, finantza eragiketen, langileriaren, obra, zerbitzu eta hornidura kontratazioaren, laguntza eta dirulaguntzak publikoak ematearen, eta zuzenbide publikoko sarreraren arloetan aplikagarri den araudia betetzen den aztertu da.
- Kontularitzakoak: aztertu da ea Kontua ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatzen den.
- EAEko Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemai eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- “Donostiako portuan, sarbideko hegoaldeko muturra egonkortzeko lanak” espedientea (19 zk. esp.), 819.612 euroan esleitutakoa, larrialdiko aparteko prozedura bidez izapidetu da, 2017ko SPKLren 120. artikulua aurreikusia; ez da, baina, behar bezala justifikatu aparteko prozedura honen erabilera eta lau hilabeteen baino gehiagoan gainditu da izapide mota hau betetzen hasteko gehieneko epea (A1 akatsa) (ikus A.18).

2.- “Familia bitartekaritzako zerbitzu integrala ematea hiru lurralde historikoetan” espedientea (39 zk.), 1,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoa, SPKLTBz kanpoko kontratu modura lizitatu da, publikotasun eta lehia askearen printzipioak behar bezala bermatu gabe, ez baita EBAOn argitaratu eta eskaintzak aurkezteko emandako epea 13 egunekoa izan baita, 52 egunekoa izan behar zukeenean (A5 akatsa) (ikus A.18).

3.- “EAEko Administrazioaren arrisku ugarien aseguru” (40 zk. esped.) kontratuaren IV. lotearen kontratu aldatuan, zeinaren xedea bidaian laguntza emateko zerbitzua kontratatzea baitzen 281.248 euroren zenbatekoan, prestazio berriak onartu ziren kontratuaren % 10eko muga jo arte, kontratuaren oinarrizko baldintzak eraldatzea saihesteko; ordea, aldaketaren kostua 387.309 euro izan zen. Aldaketak estaltzen ez zuen prestazioa –onartu eta ordaintzeko dagoena- prozedura guztiz saihestuta kontratatu zen. Gainera, aldaketan jasotako prestazioak ez daude SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako egoeretan barne hartuak eta honenbestez, beste lizitazio bat eskatuko zuketan (C3 akatsa) (ikus A.18).

4.- 2018ko ekainaren 12ko eta 2019ko ekainaren 11ko Gobernu Kontseiluek euren gain hartu dute 2018ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko eta ekonomikoa, Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 24.4 artikuluan aurreikusitako aparteko prozedura baliatuta; gastu horiek 43,3 milioi eurorenak izan dira, zeinen gainean EKBk aurkako txostena egin baitzuen. Gastu hauek honako hauei dagozkie: 21,4 milioi euroren 58 zerbitzu-kontraturik; 19,1 milioi euroren zerbitzuak kudeatzeko 8 kontraturik; 2,1 milioi euroren 8 hornidura kontraturik; 540.267 2 obra kontraturik eta 206.025 euroren dirulaguntzen espediente bati. Ez-betetze nagusiak izan dira prestazioak egitea zegokien kontratu espedientea izapidetu gabe eta publizitate eta lehia printzipioei jarraitu gabe, horiek egin beharrekoak bailirateke SPKLTBn ezarritakoari jarraituz (ikus A.18).

Gure ustez, aurrez azaldutako ez-betetzeak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak 2018. ekitaldian arrazoizko eran bete du bere ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, eta 2017ko aurrekontuaren likidazioan jasotako 1.tik 4. oharrera bitartekoetan adierazitakoa aintzat hartuta, honekin batera doazen EAEko Administrazio orokorraren kontuek alderdi nabarmen guztietan adierazten dute 2018ko ekitaldiko ekonomia jarduera, 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza, bai eta egun horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion bere emaitzena eta eskudiruzko fluxuena ere, aplikagarri den finantza informazioko arau esparruari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraikiz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten hutsuneak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.1.- Egoeraren Balantzeak ez du ibilgetuko hainbat kontu-sail osatzen dituzten ondasun guztien banakako xehapenik, hala nola, instalakuntza teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, lanabesak eta altzariak, aplikazio informatikoak, e.a. Horrela erregistratutako zenbateko osoa 162,6 milioi euro da.

3.1.2 EA Eren Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorren eta Urteko Kontuen likidazioan jasotako informazioak EA Eren Ekonomia Kontrol eta Kontabilitateko Legearen testu bateginaren 8. artikulua eta Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren 124. artikulua gutxiengo izaerarekin eskatzen duten informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EA Eren sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia, finantza eta ondare egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.

3.1.3.- Administrazio Orokorrek ez zituen aurrekontuko beharrezko aldaketak izapidetu EHUko 2018ko irakasle eta ikerlarien ordainsari osagarriak aitortzeko; horren ondorioz, ez dira ekitaldi itxieran aitortu 3,4 milioi euroren obligazioak.

III.2 LANGILERIA-GASTUAK

3.2.1 Indarreko Lanpostu Zerrendek ez dituzte 2018ko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten 1.188 plaza barne hartzen, ondoko xehakapenaren arabera:

LANGILE MOTA	PLAZA KOPURUA
Justiziako langileak	1.026
Hezkuntza Saileko langileak	96
Nekazaritza ganber. eta jabetza ganberetatik datozen lan kontratuko lang.	2
Hainbat sailetako langileak	55
Tokiko osasun langile farmazeutikoak eta Osakidetzatik datozenak	9
GUZTIRA	1.188



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Justiziako langileen plazak Bilboko eta Donostiako bulego judizialei dagozkie. Langileen lanpostu zerrendak onartzea EAEren Administrazio orokorraren egitekoa da, aldez aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren aldeko txostena jasota, Botere Judizialaren 1985eko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 522 artikuluan xedatuta dagoenez. Esan beharra dago otsailaren 27ko 29/2018 Dekretu bidez onartu zirela EAEko Justizia Administrazioko Lanpostuen Zerrendak, Donostiako Bulego judizialekoak (310 plaza) eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegikoak (10 plaza).

III.3 DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza zuzenak (Ikus A.19)

3.3.1.- Administrazio orokorrak Jaurlearitzako Kontseiluaren Erabaki bitartez 5,1 milioi euroren dirulaguntza zuzenak eman dizkie 15 onuraduni; onuradun horiek aurreko bi ekitaldietakoren batean ere helburu bererako dirulaguntzak jaso zituzten (ikus A.19, A1 akatsa).

Baldin dirulaguntza horiei datozen ekitaldietan eusten bazaie, komenigarria litzateke dagozkien aurrekontuetan izenez jasotzea.

3.3.2.- A.19 eranskinean jasotako dirulaguntzak aztertu ditugu eta honako alderdi hauek dira azpimarragarriak:

- Auzo jakin batzuk berroneratzeko emandako 9,1 milioi euroren hiru dirulaguntzatan izaera berezia zuten jarduerak subentzionatu dira, aurreikusitako kostuaren % 5 eta % 25en pareko direnak; ordea, gainerako ekintzak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduan aurreikusirik zeuden. Dirulaguntza zuzenen emakida soil-soilik egoera berezietan baliatzea gomendatzen dugu, gainerakoak izaera orokorreko deialdietara lerratuaz (A2 akatsa).
- Guztira 13,5 milioi euroren zenbatekoan emandako dirulaguntzetatik 9tan konturako ordainketa araubide bat ezarri da diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko funtsak aurreratzeko beharra justifikatu gabe, EAEHONALTBRren 49.11 artikuluan finkatutakoaren arabera (A3 akatsa).
- Ez dira jaso dirulaguntzak kudeatzen dituen saileko plan estrategikoan guztira 6,6 milioi euroan emandako dirulaguntzetatik 8, DLOren 8.1 artikulua agintzen duen moduan (A4 akatsa).
- Guztira 1,7 milioi euroan emandako dirulaguntzetatik 2tan emakida erabakiak ez du zehazten diruz lagundutako jarduera garatu eta kudeatzeko esleitutako erakunde onuradunaren langile-efektiboak, ez horien kualifikazioa eta dedikazio maila; horrek egotzitako gastuen zuzentasuna zehaztea eragozten du (A5 akatsa). Bi dirulaguntza hauetan eta bestean, guztira 2,4 milioi euroren zenbatekoan, diruz lagundutako gastua egiaztatzeko bidalitako langile gastuen agiri justifikagarriak ez dira behar hainbatekoak (A6 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 350.000 milioi euroren zenbateko dirulaguntza batean ez da inongo prozedurarik finkatu jasotako helburu bereko beste laguntza batzuekiko bateragarritasunaren muga bete izana egiaztatzea bideratuko duenik (A.7 akatsa).

Lehiaketa publiko bidez emango diren dirulaguntzak (ikus A.19)

3.3.3.- Hamahiru dirulaguntza lerro arautzen dituen arautegia aztertzean –A.19an dago xehakatur-, honako akats hauek azaleratu dira:

- Berrikusi diren lerroetatik 2en araudian (1 eta 10 zenbakiak) ez da jaso DLoren 31. artikuluan xedatutakoa, zeinak agintzen baitu hiru eskaintza eskatu behar direla baldin eta diruz lagundutako gastuak kontratu txikiaren mugak gainditzen baditu (B1 akatsa).
- Aztertu ditugun 13 lerroetatik 9tan (1, 2, 3, 4, 8, 10, 11, 12 eta 13 zenbakiak) gomendagarria litzateke aurrekontuko oroitidazkiak adierazleak txertatzea, lagundutako proiektu eta enpresa kopuruaren kuantifikatze hutsa egitera mugatu barik, efikazia eta efizientzia neurtzea ere bideratuko dutenak (B2 akatsa).
- Gastronomiaren kalitatea sustatzeko laguntzetan (Gastrobikain programa, 4. zenbakia), emakida proposatzen duen organoaren osaera emakida data ondoren eman da argitara EHAAAn eta horrek eragotzi egiten du errefusatze eskubidea modu eraginkorrean baliatu ahal izatea (B3 akatsa).
- Aztertu diren 13 lerroetatik 2tan (6 eta 7 zenbakiak) ez dira laguntzak emateko ebazpenak argitaratu, EAEHONALTBren 49.2 artikulua agintzen duen moduan (B4 akatsa).
- Prestakuntza modulua lantokian egin duten ikasleentzat egonaldia enpresan luzatzeko beken lerroak (6 zk.) izangaiak aurkezteko ematen duen epea EAEHONALTBren 51.1 artikulua agintzen duena baino txikiagoa da (C5 akatsa).
- Aztertu diren lerroetatik 2tan (3 eta 13 zenbakiak), arautegiak ez du ezartzen onuradunak obligazioa duela Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta HKEEK eskatzen dien informazioa emateko, EAEHONALTBren 51.1k artikuluan ezarritakoaren arabera (B6 akatsa).
- Oinarritzko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroei – BERC Programa (7 zk.) laguntza emateko oinarri-arauak finkatzen dituen arauak irizpide oso orokorrak ematen ditu zentroen esperimentaltasun maila zehazteko eta ez du horiek balioztatze modua zehazten (B7 akatsa).
- Bikaintek programak (3 zenbakia) konturako ordainketen erregimena ezartzen du gastua justifikatu aurretik. Aldez aurretik egindako finantzaketa honek aparteko izaera behar du izan eta dirulaguntzari lotutako ekintzak gauzatu ahal izateko beharrezkoa dela justifikarazi gabe eman da, EAEHONALTBren 49.11 artikuluan ezarritakoari jarraikiz (B8 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3.3.4.- Dirulaguntza lerroen emakidako espedienteak aztertzean –A.19an dago xehakatur-, honako akats hauek azaleratu dira:

- Euskal kultura-ondareari balioa eman eta zabaltzeko laguntzen lerroaren 2018-2020 ebazpen-proposamenean, 2,4 milioi euroren zenbatekodunean, balorazio irizpideei ematen zaien puntuazioa ez da behar bezala justifikatu, APAPELen 35. artikulua agintzen duen moduan (C1 akatsa).

III.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren eta lehenagoko ekitaldietan esleitu ziren 18 espedienteko lagina eta 2018an esleitutako 22 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.18 eranskinean dago.

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 139,2 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (3, 8 eta 11 zenbakiak) 3 hilabeteko epea gainditu da behin obrak hartu ondoren azken ziurtagiria onartzeko, SPKLren 218. artikulua eta SPKLTBren 235. artikulua zehazten dutena. Atzeraldiak 1,3 eta 10 hilabete bitartekoak izan dira (D1 akatsa).
- Guztira 10,2 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (7, 11 eta 12 zk.) azken ziurtagiria ez du horretarako eskumena duen organoak onartu, SPKLTBren 235. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz (D2 akatsa).
- 11,5 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (7 eta 10 zk.) harrera akta izenpetu da kontratua osorik betetzeko akatsak edo egin gabeko lanak dauden adierazi gabe, nahiz bereizitako agiri batean zehaztu diren. Aktek berariaz jaso behar dute obren egiazko egoera, ikusitako akatsak zuzentzeko emandako epea adieraziaz, SPKLTBren 235 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (D3 akatsa).
- Guztira 10,1 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (10 eta 15 zk.) obra egiteko egiazko epeak 5 hilabete baino gehiagoan gainditu du aurreikusitako amaiera data, dagokion epe luzapena izapidetu gabe, SPKLTBren V. tituluan aurreikusitakoaren arabera. Gainera, 15 zk. espedientea larrialdiko prozedura bidez izapidetu zen (D4 akatsa).
- Guztira 10,7 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (8 eta 12 zk.), non kontratua betetzeko epea hurrenez hurren 2 eta 3 hilabetetan luzatzen duten bi aldaketa onartu baitira, ez dago erasota laneko programa berria aurkeztu eta onartu denik (D5 akatsa).



III.4.2 2018AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- 20 zk. espedienteak, milioi 1 euroan esleitutakoa, SPKLTBren 112. artikuluan aurreikusitako presako prozedura bidez esleitu da, justifikatu gabe (A2 akatsa).
- Guztira 28,5 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (20, 35 eta 40 zk.), pleguetan balio-judizioei lotutako balorazio irizpideak orokorrak dira, bai balioztatu beharreko alderdi zehatzei dagokienez, bai haztaperari dagokionez ere (ikus A3). Balio-judizio baten baitako diren balorazio irizpideak argi jaso behar dira, kontratazio araudiak agintzen duen gardentasun printzipioa betearaztearren.
- Guztira 14,6 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (35 eta 37 zk.), balio-judizioari meneratutako balorazio irizpideetako batzuk ez zaizkio kontratuaren xedeari lotzen, SPKLTBren 150. artikulua agintzen duen moduan, baizik eta hein handi batean subjektuari lotzen zaizkio, esleipenean aintzat hartu behar ez diren kaudimen teknikoko alderdiak izaki (A4 akatsa).
- Guztira 14,6 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (35 eta 37 zenbakiak), prezioa balioztatzeko baliatutako formulak irizpide ekonomikoaren garrantzia desitxuratu dezake, puntuazioa aitortzen baitie lizitazio-prezioa berdintzen duten eskaintzei (A6 akatsa).
- Guztira 47,7 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan (33, 34, 35, 37 eta 38 zk.) ez da behar hainbat justifikatu espedienteak lotetan ez banatzea 2014/24/EB Zuzentaraua aplikatuz; banatzeak errazago betearaziko zuen enpresa txiki eta ertainen (ETeak) parte-hartzea bultzatzeko helburua (A7 akatsa).
- 32 zenbakiko espedientean, gehieneko 20,1 milioi euroren aurrekontuarekin formalizatutako esparru akordioan, oinarri teknikoaren pleguak aldatu dira, baina espedientean ez dago aldaketa hori onartuko duen kontratazio-atalaren erabakirik; gainera, nahiz aldaketa kontratatzailearen profilean argitaratu zen, dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzea falta da (EBAO eta EAO), eta ez da eskaintzak aurkezteko epea luzatu (A8 akatsa).
- Guztira 8,5 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (26, 37 eta 38 zk.) gaudituta egin da esleipenerako finkatutako gehieneko epea, SPKLTBren 161. artikulua eta SPKLren 158. artikulua (2017) arautzen dutena (B1 akatsa).
- 1,6 milioi euroan esleitutako 25 zenbakiko espedientean, lizitatzailerak guztiei esleipenaren ebazpena jakinarazi zaie kontratua sinatu ondoren eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak agintzen duen epea gaudituta (B2 akatsa).
- 26 zk. espedientean, 1,4 milioi euroan esleitu zena, kontratua formalizatu da SPKLren (2017) 153.3 artikulua aurreikusitako epea gaudituta, administrazioari egozgarria zaion kausagatik. Saihestu egin behar dira kontratatzailearen aldetik erreklamazioak eragin ditzaketan atzerapenak, aipatutako artikulua 5. atalak agintzen duen moduan (B3 akatsa).
- Guztira 5,2 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (19, 21, 26 eta 27 zk.) ez da ageri kontratua kontratatzailearen profilean argitaratu denik, SPKLren (2017) 154.1 artikuluan agindutakoaren arabera (B4 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Hiru espedientetan (35, 37 eta 40 zenbakiak, 32,7 milioi euroan esleituak), balio-judizioari lotutako irizpideak balioztatzen dituzten txosten teknikoek ez dituzte aski arrazoitu emandako puntuazioak (B5 akatsa).
- Guztira 3,6 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (24 eta 25 zk.) kontratazio atalak segurtasun eta osasun plana onartu du pleguetan zehaztutako gehieneko epea gaindituta eta horrek obrak beranduago hastea eragin du (C1 akatsa).
- Guztira 14,7 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (22, 23, 24 eta 25 zenbakiak), ez da ageri kontratazio atalak lanerako programa onartu duenik (C2 akatsa).

III.4.3 KONTRATU TXIKIAK

- Guztira 597.573 euroren zenbatekoan kontratatutako 258 ondasun eta zerbitzuen kontratazioa aztertzean, zuzenean kontratatu direla ikusi dugu, kopurua aintzat hartuta aurretik eskaintzak eskatuta kontratatu behar ziratekeenean SPKLTBri lotutako kontratuetan edo prozedura ireki erreztu bidez arau horri lotutako kontratuetan, SPKLren 159.6 artikulua aurreikusten duena; hona hemen zein saili dagozkien: Lana eta Justizia (155); Segurtasuna (87); Osasuna (4); Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza (4); Hezkuntza (3); Lehendakaritza (2); Gobernantza Publikoa eta Autogobernua (2); eta Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak (1).
- Guztira 2,1 milioi euroren zenbatekoa egin duten gastuak azaleratu dira, 96 hirugarreni dagozkienak, lehiaketa bidezko lizitazio bidez kontratatzeke gutxienekora iristen ez badira ere, elkartu litezke aleko prezioetan edo ahalik eta lehia handiena bermatuko duten beste prozedura batzuk baliatuta lizitatzeko. Hezkuntza Saileko obra txikiei dagozkie.

III.5 FINANTZA AKTIBOEN BARIAZIOA

Finantzen Euskal Institutuko gizarte funtsa 20 milioi euroan gehitu da enpresentzat partaidetzen erosketa eta maileguak finantzatzeko, Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura Saileko Industria Garapena programaren kontura; ordea, gizarte funtsa gehitu da alde aurretik erakundearen kapital-aurrekontua aldatzeko Ogasun eta Ekonomia Saileko Aurrekontuen Zuzendaritzak baimenik eman gabe, EAETBren 97.2 artikulua agintzen duen moduan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.6 ABALAK

8 espediente aztertu ditugu Berme Publiko bidez Aparteko Finantzaketa Lerroari dagozkion abalen emakida guztiaren gainean % 60 egin dutenak; lerro hori Administrazio Orokorraren eta hainbat finantza-erakunderen artean 2012ko uztailaren 5eko hitzarmen bidez ezarri zen eta 2018ko ekitaldian indarrean egon da; espediente horiek aztertzean ondotik adierazitako egoerak azaleratu dira, hitzarmenaren baldintzak betetzean eragina dutenak:

- Administrazioak ez du EHAA-n onuradunen zerrenda argitaratu, emandako abalen zenbatekoaren, laguntzaren zenbatekoaren eta minimis izaeraren informazioa emateko.
- Ez da egiaztatu enpresa berreskurapen-agindu baten baitan dagoenik, Europako Batzordeak aurretik hartutako erabaki baten indarrez, zeinaren ondorioz laguntza bat ez-legezko eta barne merkatuarekin bateraezin deklaratu baita; hala balitz, laguntza mota honen ukazioa eragingo luke.
- Enpresa txiki eta ertain izaera duen zehazteko onuradunak egindako erantzukizuneko adierazpenean jasotako datuak soilik hartuko dira kontutan. Gomendagarria litzateke administrazioak baldintza modura urteko kontuak aurkezteko eskatzea.

III.7 BESTE ALDERDI BATZUK

- Administrazio Orokorrak 2018ko ekitaldian egindako ordainketak aztertzean, ikusi da merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epea 18 egunekoa izan dela. Horrenbestez, bete da merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritako gehienezko 30 eguneko epea. Hala ere, egindako ordainketen % 21ek -239 milioi eurorenak- gainditu egin du epe hori. Bestalde, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera – abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretu bidez aldarazitakoa, zeinak administrazio publikoetako hornitzaileei ordainketak egiteko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia finkatzen baitu, ordaintzeke dauden eragiketen ratioa 22,78 egunekoa da.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Ondoko taulak Aurrezki gordinak, Emaidza arruntak eta Aurrekontuko emaitzak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du:

	2015	2016	2017	2018	Euroak, milioikotan	
					2018/2017	
					Aldea	%
Sarrera arruntak (1)	8.759,5	9.059,5	10.128,5	10.275,3	146,8	% 1,4
Zeharkako zergak	3,9	3,9	4,0	4,1	0,1	% 2,5
Tasak eta beste	180,4	181,6	178,0	170,0	(8,0)	(% 4,5)
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	8.539,8	8.837,8	9.944,3	10.099,6	155,3	% 1,6
Ondare-sarrerak.....	35,4	36,2	2,2	1,6	(0,6)	(% 27,3)
Gastu arruntak (2)	8.422,1	8.668,9	8.979,7	8.951,9	(27,8)	(% 0,3)
Langileria-gastuak.....	1.929,5	1.972,1	2.020,8	2.043,8	23,0	% 1,1
Funtzionamendu-gastuak.....	3.308,8	3.388,3	3.448,9	3.524,5	75,6	% 2,2
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	3.183,8	3.308,5	3.510,0	3.383,6	(126,4)	(% 3,7)
Aurrezki gordina (3=1-2)	337,4	390,6	1.148,8	1.323,4	174,6	% 15,2
Finantza-gastuak (4).....	231,1	201,6	185,4	180,1	(5,3)	(% 2,9)
Emaidza arrunta (5=3-4)	106,3	189,0	963,4	1.143,3	179,9	% 18,7
Inbertsio garbiak (6)	642,2	681,1	843,6	828,6	(15,0)	(% 1,8)
Inbertsio errealak	206,9	228,9	202,0	178,6	(23,4)	(% 11,6)
Kapital transf. eta dirulag.....	542,1	581,6	697,7	694,3	(3,4)	(% 0,5)
Aktibo finantzarioen gehikuntza	73,0	111,3	104,9	97,6	(7,3)	(% 7,0)
Inbertsio errealen besterentzea	1,5	0,9	0,2	12,1	11,9	% 5.950,0
Jasotako kapital transf. eta dirulaguntzak.....	125,7	173,2	137,0	106,4	(30,6)	(% 22,3)
Aktibo finantzarioen gutxitzea	52,6	66,6	23,8	23,4	(0,4)	(% 1,7)
Jaulkitako zor garbia (7)	476,7	533,7	321,0	58,7	(262,3)	(% 81,7)
Pasibo finantzarioen gehikuntza.....	1.163,0	1.106,0	975,0	1.273,7	298,7	% 30,6
Pasibo finantzarioen gutxitzea.....	686,3	572,3	654,0	1.215,0	561,0	% 85,8
Aurrekontu arruntaren emaitza (8=5-6+7)	(59,2)	41,6	440,8	373,4	(67,4)	(% 15,3)
Aurrekontu itxien emaitza (9)	(21,1)	(80,0)	(33,6)	(3,9)	29,7	(% 88,4)
Ekitaldiko Aurrekontu Emaidza (8+9)	(80,3)	(38,4)	407,2	369,5	(37,7)	(% 9,3)

Sarrera arruntek % 1,4 egin dute gora aurreko ekitaldiarekiko, % 0,3 murriztu diren gastu arruntan aldean; horrek ekitaldian 1.323,4 milioi euroren aurrezki gordina sortzeko bide eman du, 2017an eskuratutakoa baino 174,6 milioi handiagoa.


Sarrera arruntek 146,8 milioi euroren igoera izan dute; nagusiki, foru aldundiek ekarpen handiagoa egin dutelako: aurreko ekitaldian baino 164 milioi euro gehiago.

Gastu arruntek 27,8 milioi euroan behera egin izanaren arrazoiak honako hauek izan dira batik bat: Lanbideri enplegua eta gizarteratzea sustatzeko egindako transferentziak 50,8 milioi euroan murriztu izana; eta lurralde historikoei egindako ekarpen eta konpentsazio multzoa (Doiketaren Funts Orokorra eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistotik eratorritakoak) 2017ko ekitaldikoen aldean 75 milioi euroan murriztu izana; bi-bien artean gainditu egin dute langile eta funtzionamendu gastuetan eta gainerako dirulaguntza eta transferentzietan izandako igoera.

Inbertsio garbiek 15 milioi euro egin dute behera. Bariazio esanguratsuena Euskal Herriko Trenbide Sare berriaren Gipuzkoako bide-zatia egikaritzeari dagokio, 33,5 milioi euro behera egin duela. Egikaritze txikiago honek eragin du obra hauek finantzatzeko Estatutik jasotako transferentzien zenbatekoa kopuru berean murriztea. Inbertsio errealak besterentzeko kapituluak izandako igoera, nagusiki, Donostiako Prim kalean 10,4 milioi euroren eraikin bat saldu izanari dagokio.

Hona hemen adierazle nagusien bilakaera grafikoan jasota:

AURREZKI GORDINA, INBERTSIO GARBIA ETA JAULKITAKO ZOR GARBIA





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azken lau ekitaldietan, diruzaintza geldikinaren eta formalizatutako zorpetzearen bilakaera honako hau izan da:

	Euroak, milioikotan				
	2015	2016	2017	2018	BARIAZIOA 2018/17
DIRUZAINZA GELDIKINAREN BILAKAERA					
Diruzaintza Geldikina	359,6	321,2	728,4	1.098,0	369,6
Zuzkidurak eta doiketak.....	204,9	146,1	139,5	146,2	6,7
Diruzaintzako geldikin erabilgarria	154,7	175,1	588,9	951,8	362,9
ZORPETZEAREN BILAKAERA					
Erabilitako zorra (balio nominala 12.31n).....	8.230,7	8.768,4	9.085,0	9.136,7	51,7
Erabili gabeko zorra.....	-	-	140,0	-	(140,0)
Formalizatutako zorpetzea (A.15)	8.230,7	8.768,4	9.225,0	9.136,7	(88,3)

Ekitaldiko emaitza arrunta aski izan da inbertsio garbia finantzatzeko.

AURREKONTU EGONKORTASUNeko ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNeko HELBURUAK BETETZEA

AEFILOk arautzen ditu Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko alderdiak. Hirugarren azken xedapenak agintzen du, lege horretan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzean, aintzat hartu beharko dela Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa.

Bestalde, EA Erekiko Kontzertu Ekonomikoa onesten duen 12/2002 Legeko (2002ko maiatzaren 23koa) 48. artikuluan aurreikusita dago Estatuarekiko koordinazioa eta kolaborazioa, aurrekontu egonkortasunaren gaian. Lege bereko 62. artikulua, bestetik, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren egitekoen artean bereizten du aurrekontu egonkortasunaren gaietan kolaborazio- eta koordinazio-konpromisoak hitzartzea.

2017ko uztailaren 19ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabaki bitartez, aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak zehaztu ziren 2018-2020 aldirako. 2018ko ekitaldirako, aurrekontuaren egonkortasun helburua defizitaren % 0,4an ezarri zen eta zor publikoarena % 14,2an, biak ere Barne Produktu Gordinaren gainean kalkulaturik. Gastuaren arauari dagokionez, 2018ko ekitaldirako gastuaren igoera gehienekoa aurrekoaren aldean % 2,4an ezarri zen, ekonomiaren igoeraren erreferentzia-tasaren kalkularen arabera.

AEFILOko 17. artikuluan xedatutakoari jarraituz, 2019ko maiatzean eta urrian Ogasuneko Ministerioak egindako aurrekontuaren egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu arauko helburuen betetze mailari buruzko txostenek adierazten dute EAEk bete dituela 2018ko ekitaldirako ezarritako helburuak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. 2018KO EKITALDIKO KONTUAK 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU ARRUNTA							Euroak, milioikotan
SARRERAK KAPITULUA	HASIER.		B. BETIKO AURREK.	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBATUA	KOBATU GABE	
	AURREK.	ALDAK.					
2. Zeharkako zergak	4,2	-	4,2	4,1	3,1	1,0	
3. Tasak eta bestelako sarrerak (A.8).....	71,4	71,8	143,2	170,0	145,4	24,6	
4. Transf. eta dirulag. arruntak (A.9).....	9.622,1	43,9	9.666,0	10.099,6	9.815,5	284,1	
5. Ondare-sarrerak.....	1,3	0,1	1,4	1,6	1,6	-	
6. Inbertsio errealen besterentzea	7,0	-	7,0	12,1	12,1	-	
7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.10).....	193,4	21,2	214,6	106,4	84,3	22,1	
8. Aktibo finantzarioen gutxitzea (A.11).....	43,8	66,9	110,7	23,5	19,5	4,0	
9. Pasibo finantzarioen gehikuntza (A.15).....	1.543,2	101,1	1.644,3	1.273,7	1.273,7	-	
GUZTIRA	11.486,4	305,0	11.791,4	11.691,0	11.355,2	335,8	

Euroak, milioikotan							
GASTUAK KAPITULUA	HASIER.		B. BETIKO AURREK.	OBLIGAZ. AITORTUAK	ORDAIND. ORDAIND.	ORDAIND. GABE	
	INICIAL	ALDAK.					
1. Langile-gastuak (A.3).....	2.074,5	18,6	2.093,1	2.043,8	2.043,8	-	
2. Funtzionamendu gastuak (A.4).....	3.515,1	74,1	3.589,2	3.524,5	3.221,8	302,7	
3. Gastu finantzarioak (A.15).....	233,3	(38,0)	195,3	180,1	180,0	0,1	
4. Transf. eta dirulag. arruntak (A.5).....	3.465,1	70,3	3.535,4	3.383,6	3.181,5	202,1	
6. Inbertsio errealak (A.6).....	304,6	5,4	310,0	178,6	133,5	45,1	
7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.5).....	691,7	50,9	742,6	694,3	474,1	220,2	
8. Aktibo finantzarioen gehikuntza (A.7).....	88,2	22,6	110,8	97,6	97,2	0,4	
9. Pasibo finantzarioen gutxitzea (A.15).....	1.113,9	101,1	1.215,0	1.215,0	1.215,0	-	
GUZTIRA	11.486,4	305,0	11.791,4	11.317,5	10.546,9	770,6	

AURREKONTU ITXIAK (A.12)					Euroak, milioikotan
	ZOR ESKUB./OBLIG.		KOBRA./		
	2017-12-31		ORDAINK.	BALIOGAB.	
Sarrerak.....	1.025,6		347,8	11,9	665,9
Gastuak.....	848,0		791,8	8,0	48,2

KONPROMISO KREDITUAK (A.17)				Euroak, milioikotan
KAPITULUA	HASIERA URTEA			GUZTIRA
	AURREKO URT.	2018		
Langileria-gastuak.....	-	7,0		7,0
Funtzionamendu-gastuak	84,3	171,1		255,4
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	58,9	84,5		143,4
Inbertsio errealak	81,6	600,3		681,9
Kapitalezko transferentziak eta dirulaguntz.....	182,0	209,1		391,1
Finantza-aktibo gehikuntza	242,8	26,6		269,4
GUZTIRA	649,6	1.098,6		1.748,2



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO OHARRAK

- 1. oharra.** EAEn Administrazioako diruz lagungarri diren gastuak dirulaguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei edota dirulaguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraikiz. Irizpide horren ondorioz, 2018ko abenduaren 31n badira oraindik eskagarriak ez diren ordainketa obligazioak, 100 milioi euroren zenbatekodunak.
 - 2. oharra.** 2018ko abenduaren 31 arte jasotako funts komunitarioetatik 597,2 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake, eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak diruzaintza geldikinarene gainean izan lezakeen eragina. Nolanahi ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izan litekeenik.
 - 3. oharra.** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak (88,3 milioi euro) urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren zati dira. Aurrekontuaren gauzatzeak ez du zenbateko hori islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraikiz erregistratzen baititu.
 - 4. oharra.** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek 2019tik 2027ra bitarteko urteetan 291 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten du, urte horietako EAEn Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.
-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA	Euroak, milioikotan
Saldoa 17.12.31n	9.085,0
Zor jaulkitzea (balio nominala)	966,7
Mailegu berrien erabilera (balio nominala)	300,0
Amortizazioa	1.215,0
SALDOA 18.12.31N (Balio nominala) (A.15)	9.136,7

2018KO EMAITZA, ETA DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2018-12-31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintza Geldikina 17.12.31n.....	728,4
2018ko ekitaldiko aurrekontu emaitza.....	369,6
Aurrekontu arruntaren emaitza	373,5
Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza (A.12)	(3,9)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 18.12.31N	1.098,0

DIRUZAINZAKO GELDIKINAREN GAUZATZEA 2018-12-31N	Euroak, milioikotan
DIRUZAINZAKO GELDIKINA (A.13)	1.525,9
KOBRATZEKOAK	1.286,3
Indarrean den ekitalditik kobratzeke dauden eskubideak	335,8
Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak	665,9
Zordunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	284,6
ORDAINZAKE	(1.714,2)
Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak.....	(770,6)
Itxitako ekitaldietako ordaintzeke dauden obligazioak	(48,2)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	(895,4)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 18.12.31N	1.098,0

DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2018-12-31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintza Geldikina 18.12.31n.....	1.098,0
Eraginpeko geldikina:	
Ikastetxe publikoetarako geldikina.....	(57,4)
Zalantzazko kobrantzako eskubideak	
Bestelako eskubide aitortuak	(38,5)
Diru bilketa, betearazte bidean	(20,5)
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak (A.16)	(29,8)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2018-12-31N	951,8



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

URTEKO KONTUAK

BALANTZEA			Euroak, milioikotan		
AKTIBOA	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA	4.503,1	4.443,4	ONDARE GARBIA	(3.676,1)	(4.018,3)
labilgetu ukiezina.....	47,6	52,1	Sortutako ondarea	(3.871,9)	(4.229,0)
labilgetu materiala	2.723,1	2.736,1	Aurreko ekitaldien emaitzak	(4.225,6)	(4.299,6)
Epe luz. finantza inb., taldeko erak.	1.467,5	1.398,2	Ekitaldiko emaitzak	353,7	70,6
Epe luz. finantza inbertsioak	192,3	217,6	Bst. ondare igoerak, emaitz. egozteke	195,8	210,7
Zord. eta kobratz. bst. knt b. epe luz.....	72,6	39,4	PASIBO EZ-ARRUNTA	9.161,7	9.087,0
AKTIBO ARRUNTA	3.424,2	2.881,8	Epe luz. zuzkidurak	28,0	34,9
Izakinak	700,7	668,1	E/luzeko zorrak	9.105,4	9.044,1
Zordunak eta kobratz. beste knt. b.	1.188,7	1.269,0	Hartzek. eta ordain. bst. knt b. epe luz. .	28,3	8,0
Epe motz. finan. inb., taldeko erakund....	-	22,7	PASIBO ARRUNTA	2.441,7	2.256,5
Epe motz. finantza inbertsioak	8,9	9,5	E/motzeko zorrak.....	208,7	176,4
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz.	1.525,9	912,5	Taldeko erakund. zorrak, epe motz.	562,7	475,8
			Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. .	1.670,3	1.604,3
AKTIBOA, GUZTIRA	7.927,3	7.325,2	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	7.927,3	7.325,2

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak, milioikotan		
	2018	2017		2018	2017
Zerga sarrerak	19,4	19,2			
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	10.136,6	9.976,9			
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea	57,8	167,4			
Amaitutako eta abian diren produktuen izakinen bariazioa eta balioaren narriadura	42,4	(35,8)			
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....	115,6	116,8			
Hornidura gehiegizkoak	10,5	11,1			
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	10.382,3	10.255,6			
Langileria-gastuak	(2.043,8)	(2.020,8)			
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak	(4.080,9)	(4.216,4)			
Hornikuntzak	(82,2)	(112,5)			
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(3.519,1)	(3.439,2)			
labilgetua amortizatzea	(103,0)	(104,5)			
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(9.829,0)	(9.893,4)			
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURRESKIA/AURREZKI EZA)	553,3	362,2			
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa					
besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai	10,7	(2,5)			
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....	6,5	2,1			
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	570,5	361,8			
Sarrera finantzarioak	9,1	10,4			
Gastu finantzarioak	(193,6)	(187,8)			
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(32,3)	(113,8)			
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(216,8)	(291,2)			
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURRESKIA/AURREZKI EZA)	353,7	70,6			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

1.- ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak, milioikotan

	SORTUTAKO		GUZTIRA
	ONDAREA	ONDAREKO BST. IGOERA BATZUK	
ONDARE GARBIA, 2017KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(4.229,0)	210,7	(4.018,3)
KONTULARITZAKO IRIZP. ALDATZEAG. DOIKETAK			
ETA AKATS ZUZENKETA	3,4	-	3,4
2018KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK	353,7	(14,9)	338,8
Ekitaldian aitortutako sarrera eta gastuak	353,7	(14,9)	338,8
ONDARE GARBIA, 2018KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(3.871,9)	195,8	(3.676,1)


2.- AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak, milioikotan

	2018	2017
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURRESKIA/AURREZKI EZA)	353,7	70,6
Ondare garbian jasotako aitortutako sarrerak eta gastuak		
Bestelako ondare sarrerak	2,5	5,6
Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo kontu sailaren hasierako baliora transferentziak		
Bestelako ondare gehikuntzak	(17,4)	(5,4)
DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	338,8	70,8



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA	Euroak, milioikotan	
	2018	2017
KUDEAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Kobrantzak	10.400,8	10.398,4
Zerga sarrerak	19,4	19,3
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	10.230,2	10.224,4
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	17,1	18,8
Interes eta dibidendu kobratuak	4,1	3,8
Bestelako kobrantzak	130,0	132,1
Ordainketak	9.889,9	9.797,3
Langileria-gastuak	2.012,2	2.019,1
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak	4.067,0	4.077,8
Hornikuntzak	83,0	111,0
Bestelako kudeaketa gastuak	3.540,8	3.387,4
Ordaindutako interesak	177,3	183,5
Beste ordainketa batzuk	9,6	18,5
Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk	84,8	(453,8)
Kudeaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	595,7	147,3
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Kobrantzak	90,4	51,3
Inbertsio errealeen salmenta	11,7	1,5
Finantza-aktiboen salmenta	39,6	16,3
Inbertsio jardueretako beste kobrantza batzuk	39,1	33,5
Ordainketak	218,3	204,0
Inbertsio errealeen erosketa	104,6	81,7
Finantza-aktiboen erosketa	97,7	111,4
Inbertsio jardueretako beste ordainketa batzuk	16,0	10,9
Inbertsio jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(127,9)	(152,7)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak	2.777,1	2.375,0
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	969,0	495,0
Jasotako maileguak	1.808,1	1.880,0
Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak	2.665,0	2.094,6
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	971,1	405,1
Jasotako maileguak	1.693,9	1.689,5
Finantzaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	112,1	280,4
ERAKUNDE AUTONOMOEKIKO ZORREN ALDAKUNTZA	33,5	21,1
ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA		
ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK	613,4	296,1
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. hasieran	912,5	616,4
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit amaieran	1.525,9	912,5



ERANSKINAK

A.1 ARAUDI EZARGARRIA

Hemen jasota daude 2018an EAEren Administrazio orokorraren aurrekontuen ekonomia kudeaketari eta likidazioari eragiten dieten arau nagusiak:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko Metodologiari buruzkoak, 2007-2011 aldiari ezargarri zaionak:
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 5/2017 Legea, abenduaren 22koa, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.

Aurkeztutako kontuetan sartuta daude kontu ematearen prozesua arautzen duen Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren legegintzako dekretuko 124. artikuluan zehaztutako informazioa eta egoerak:

- Ekitaldiko emaitzak: aurrekontu arruntaren eta aurreko ekitaldietako eragiketengatiko superabita edo defizita.
- Ekitaldiko diruzaintzako kontua.
- Ekitaldiko likidazioko kontua.
- Programatutako aurrekontu helburuen betetze mailaren oroitidazkia.

Gainera, Jaurlaritzak 2018ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu ditu. Hor sartuta daude balantzea, ondare emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbian egindako aldaketen egoera, eskudiru fluxuen egoera, eta oroitidazkia, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko aginduz onetsitako EAEKPP planean ezarritakoari jarraituz.

A.2 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen 2018ko ekitaldian egindako aurrekontu-kredituen aldaketak:

GASTUEN AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETAK						Euroak, milioikotan	
KAPITULUAK	ZABAL- KUNTZAK	GAI- KUNTZAK	TRANSFERENTZIAK NORAKOA JATORRIA		BST. ALDAK.	ALDAK. GUZT.	
1 Langileria-gastuak	-	1,8	67,8	(50,5)	(0,5)	18,6	
2 Funtzionamendu gastuak	-	76,9	52,1	(53,7)	(1,2)	74,1	
3 Finantza gastuak	-	-	0,1	(38,1)	-	(38,0)	
4 Transferentziak eta dirulagun. arruntak	-	38,8	89,5	(58,0)	-	70,3	
6 Inbertsio errealak	66,8	0,6	66,1	(128,1)	-	5,4	
7 Kapitalezko transferentz. eta dirulaguntzak....	-	18,7	101,4	(69,2)	-	50,9	
8 Aktibo finantzarioen igoera.....	-	2,0	45,8	(25,2)	-	22,6	
9 Pasibo finantzarioen gutxitzea.....	-	-	-	-	101,1	101,1	
GUZTIRA	66,8	138,8	422,8	(422,8)	99,4	305,0	
%, hasierako aurrekontuaren gainean	% 0,6	% 1,2	% 3,7	(% 3,7)	% 0,9	% 2,7	

Ekitaldian egindako zabalkuntzak diruzaintza geldikinen kontura finantzatu dira eta honako hauei dagozkie:

- Finantza aldetik jasagarriak diren inbertsioak, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarriari jarraikiz, 41,5 milioi euroren zenbatekoan.
- Alokabide SA sozietateari kapital-transferentziaren igoera, 15,3 milioi euroren zenbatekoan, Zabalganan (Gasteiz) babestutako 123 etxebizitzaren erosketa-aukera gauzatzeko, VISESArekin izenpetutako errentamendu kontratuaren arabera.
- VISESAri 10 milioi euroren mailegua ematea (ikusA7 eta A14).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ekitaldian izandako kreditu gaikuntzak ondorengo sarrera hauei dagozkie:

GAIKUNTZAK	Euroak, milioikotan
Finantza autonomia duten ikastetxeak.....	78,8
Europar Batasuneko sarrerak	59,5
Bestelakoak	0,5
GUZTIRA	138,8

Azkenik esan behar da 2018ko abenduaren 18ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez kreditu igoera bat onartu zela zorra eta jaulkipenengatiko sarrerak amortizatzeko, biak ere 101,1 milioi euroren zenbatekoan, zor publikoa trukatzuz amortizazio aurreratuko eragiketa baten bidez sortutakoak.

A.3 LANGILERIA-GASTUAK

Hauek dira 2017. eta 2018. urteetako plantilla eta gastuak:

	LANGILERIA ETA AITORTUTAKO GASTUAK					Euroak, milioikotan
	AURREKONTUKO PLANTILLA		OBLIGAZIO AITORTUAK		%	
	18.01.01	17.01.01	2018	2017	BARIAZIOA	
Goi kargudunak.....	164	164	12,4	12,1	% 2,5	
Behin-behineko langileak	92	92	5,3	5,0	% 6,0	
Funtzionarioak (*).....	26.274	26.086	1.071,3	1.074,2	-% 0,3	
Ertzaintza.....	8.000	8.000	299,3	314,3	-% 4,8	
Langile lan kontratudun finkoak.....	3.003	2.975	90,9	90,1	% 0,9	
Ordezkoak eta aldi baterako langileak.....			115,8	107,7	% 7,5	
LANGILEAK ETA ORDAINKETAK, GUZTIRA	37.533	37.317	1.595,0	1.603,4	-% 0,5	
Kotizazio sozialak.....			424,0	402,4	% 5,4	
Klase pasiboan prestazio sozialak			14,0	5,0	% 180,0	
Beste gizarte-gastu batzuk			10,8	10,0	% 8,0	
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA			2.043,8	2.020,8	% 1,1	

(*) Sartuta daude Hezkuntza Saileko 19.309 funtzionario 2018an; eta 20.643, 2017an.

Ordainsariak

EAEko Aurrekontu Orokorraren Legeko 19.1 artikulua agintzen du EAEko Administrazio orokorraren zerbitzura diharduten langileen urteko ordainsari osoak % 1,5 gehituko direla, 2017ko ekitaldian finkatutakoan aldean. Ildo berean, aipatu artikulua 14. atalean ezarrita dago Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren, lehendakariordearen, sailburuen, goi kargudunen eta parekatuen 2018rako ordainsarietako igoera bera izango dutela, 2017ko ekitaldian finkatutako ordainsariaren aldean.

2018ko urriaren 9ko GKE bidez baimena eman zen 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin aipatutako igoera aplikatzeko, eta 2018ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin % 0,25eko beste igoera osagarri baterako, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusia zegoena eta 2017ko Barne Produktu Gordinak aurreko ekitaldiaren aldean % 3,1eko igoera izan edo gaintitzeari lotua zegoena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2018ko urtarrilaren 23ko GKE bitartez Itzarri-Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari langile gastuetarako zuzkiduren % 0,5eko ekarpenak egitea baimendu zen, 2012az geroztik etenda zeudenak. Gerora, 2018ko azaroaren 13ko GKEk ekarpen horiek % 1era igo zituen. Bi erabakiak EAEOAOLren 19. artikulua 16. atalean jasotako aurreikuspenaren indarrez hartu ziren. Kontzeptu honen izenean ekitaldian zehar aitortutako gastua 9,1 milioi eurorena izan da.

2018ko enplegu publikoaren eskaintzak

Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren 2018ko otsailaren 14ko Agindu bitartez, 2018rako EAEOko Hezkuntza Administrazioari enplegu publikoaren eskaintza publikoa onartu zen eta Bigarren Hezkuntzako maixu-maistren kidegoko 1.337 plaza eta Lanbide Heziketako irakasle teknikarien kidegoko 174 plaza eskaini ziren. Hautaketa probetarako deialdia Hezkuntza sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko Agindu bitartez onartu zen eta langile berriak 2018ko irailean laneratu zen (1.071 plaza), hautaketa prozesua amaitu eta praktiketako funtzionario izendatu izan ostean.

Bestalde, 2018ko abenduaren 18ko GKE bidez, EAEOko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen 2018ko enplegu publikoaren eskaintza eta Hezkuntza Administrazioaren bigarren eskaintza onartu zen; gainera, 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoari Ertzaintzaren oinarritzko eskalako agente kategorian sartzeko plaza kopurua gehitu zitzaion.

Hona hemen eskaintako plazzen xehakapena:

	Plaza kopurua
Administrazio Orokorra eta erakunde autonomoak	
Langile funtzionarioak (txanda irekia).....	280
Langile funtzionarioak (barne-promozioa).....	40
Lan-kontratuko langileak	17
Hezkuntza Administrazioa (2. eskaintza)	
Bigarren Hezkuntzako irakasleak	849
Lanbide Prestakuntzako irakasle teknikoak	48
Ertzaintza	
Oinarritzko eskalako agenteak	500
GUZTIRA	1.734

Erabakiak ere onartzen zuen aipatutako Plan Estrategikora gehitzea Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzuko langileria estatutario finkoko plazak (1.083), baita Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen deialdi publikoak deituko dituen plazak ere (74).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Txanda kontratuarekin batera hartutako erretiro partzialak

2018an, 60 urtez gorakoentzat bereizitako erretiro partziala hartu dute 113 langilek, eta beste horrenbeste txanda-kontratu sinatu dira. Egin diren erretiro partzial guztietan, langile erretiratuen dedikazioa % 25ekoa da, eta gainerako lanaldia txandako langile berriek bete dute.

Kargutik kentzeagatiko kalte ordainak

2018an, 34.393 euroren zenbatekoa ordaindu zaie 6 pertsonari, Jaurlaritzako kideak, goi karguak eta Administrazio orokorreko konfiantzako langileak kargutik kentzeagatik. Onuradun bakoitzari ordaindutako kalte-ordaina ordainsariaren hileko baten baliokide da, Goi Kargudunen Ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legeko 5.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aldi baterako prestazio ekonomikoa

2018an, 29.825 euroren zenbatekoa ordaindu zaie 5 pertsonari aldi baterako prestazio ekonomikoaren kontzeptupean, Jaurlaritzako kideak, goi kargudunak eta Administrazio orokorreko konfiantzako langileak kargutik kendu izanaren ondorioz langabezian egoteagatik. Jasotako prestazioa hilabete bateko ordainsariaren % 40ren pareko da eta zerbitzu-urte bakoitzeko edo 6 hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko 3 hilabeteko iraupen aldia du, gutxienez 3 hilabetekoa eta gehienez 12 hilabetekoa izango delarik, Goi Kargudunen Ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 5.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 FUNTZIONAMENDU-GASTUAK

Hona hemen xehakapena, kontzeptuka:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	OBLIGAZIO AITORTUAK	
	2018	2017
Errentamenduak eta kanonak	15,5	13,5
Konponketak eta artapena	45,5	43,5
Profesional independenteen zerbitzuak.....	2,7	2,6
Garraioak	1,4	1,1
Aseguru primak, banku zerbitzuak eta antzekoak.....	4,1	3,3
Erakunde komunikazioa, publizitatea eta harreman publikoak	9,7	8,2
Hornidurak	51,2	49,3
Bestelako kanpo zerbitzuak	367,8	362,8
- Bulegoko materiala, prentsa eta argitalpenak	11,7	12,2
- Garbiketa	36,6	36,6
- Segurtasuna	15,7	15,1
- Lokomozioa eta egonaldi gastuak	8,8	8,8
- Komunikazioak	15,9	15,1
- Mantentzea eta ustiapena	9,9	10,7
- EAEko sektore publikoko erakundeek egindako zerbitzuak.....	92,4	89,7
- Eskola jantokietarako zerbitzuak egitea	78,9	79,2
- Eskola garraioa eta laguntzaileak	22,3	22,9
- Bestelakoak	75,6	72,5
Osasun zerbitzuak	3.014,2	2.947,7
Zergak	5,1	5,4
Hainbat gastu.....	7,3	11,5
GUZTIRA	3.524,5	3.448,9



A.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA ARRUNT ETA KAPITALEZKOAK

Hartzaileak eta kontzeptuak aintzat hartuta, honela xehakutzen dira:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan			
	OBLIGAZIO AITORTUAK		KONPROMISO KRED.	
	ARRUNTA	KAPITALA	ARRUNTA	KAPITALA
EAEren Administrazio orokorrari	0,3	-	0,1	-
Administrazio erakunde autonomoei.....	876,3	0,3	-	-
Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei	177,6	195,0	-	-
Sozietate publikoei.....	136,4	106,1	0,1	4,6
Fundazioei	28,1	5,0	0,2	0,1
Partzuergoei	43,7	-	-	-
EAEko Administrazio publikotzat sailkatutako erakundeei	376,5	81,1	8,1	40,3
Foru aldundiei.....	112,3	2,6	-	-
Euskadiko toki erakundeei	59,7	55,9	1,0	26,2
Espainiako eta kanpoko sektore publikoko beste erakundeei	2,1	4,6	0,2	-
SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA	1.813,0	450,6	9,7	71,2
Kanpo sektore pribatuari.....	0,3	-	-	-
EAEko sektore publikoaren partaidetza duten enpresei	3,1	1,3	-	1,5
Beste enpresa batzuei	82,0	125,9	13,9	70,3
Familiei	155,5	24,5	8,9	14,0
Fundazioei	26,2	45,0	1,4	21,0
Irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei	94,3	47,0	15,5	31,1
Hezkuntza itunak eta bestelako prestazio sozialak	686,6	-	35,1	-
Protesiak eta elbarrientzako ibilgailuak.....	7,6	-	-	-
Kalte ordainak eta arauzko entrega bakararak	0,6	-	-	-
Farmazia (mediku errezetak)	514,4	-	-	-
SEKTORE PRIBATUA, GUZTIRA	1.570,6	243,7	74,8	137,9
GUZTIRA	3.383,6	694,3	84,5	209,1



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen GKE bidez EAEONALTBeko 49.7. artikularen babesean emandako zuzeneko dirulaguntza nagusien xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	D FASEA 2018		KONPROMISO
	ARRUNTA	KAPITALA	KREDITUAK
Hiri eremua leheneratu eta zaharberritzeko jarduerak			
Bilboko Udal Etxebizitzak Otxarkoaga auzoa	-	0,9	3,8
Lasarte-Oriako Udala Basaundi Bailara auzoa	-	0,2	2,2
Durangoko Udala Aramotz auzoa	-	0,2	1,8
Ikerbasque Fundazioa Bikaintasuna ikertzeko laguntza (BIHAR proiektua)	-	1,1	-
Donostia International Physics Center Fundazioa Superkonputazio gunea	-	1,0	-
Ikastetxe itunduak. Liberatu sindikalen kostua finantzatzea, 17/18.....	1,0	-	-
Merkatarien elkarteak Denden digitalizazioa	0,9	-	-
Aranzadi Zientzi Elkarteak Ondare naturala ezagutu eta zaintzea.....	0,3	-	0,6
Merkataritzako ganbera ofizialak e-Commerce programa 2018	0,8	-	-
Innobasque. Gizarte berrikuntza, kolaborazioko proiektu gidariak.....	0,7	-	-
Biocruces Osasun Ikerketako Institutua eta Biodonostia Institutua Elkarteak			
Gailu mediku eta osasun arloko teknologiak balioztatu eta azaltzea.....	0,7	-	-
Alavesa de Patatas, S.A. Kalteak berdintzea (Ralstonia solanacearum)	0,6	-	-
Guggenheim Bilbao Museoaren fundazioa Aurrekontu operatiboa 2018	0,5	-	-
Itsas salbamendu humanitarioa Aita Mari Zubia - Mayday terraneo 2018 proiekt.	0,4	-	-
Añanako Kuadrilla Micaela Portilla eskola	0,2	0,2	-
Elkargi Hornidura teknikoaren funtsa indartzea.....	-	0,4	-
Azti Fundazioa "Knowledge and Innovation Community (kic) on Food" proiektua	0,3	-	-
Tecnalia Fundazioa Offshore eremuaren azpiegitura, entsegua eta baliozkotzea	-	0,3	-
Ikastetxe itunduak. Unitate itunduen urritzeak eragindako zentroak	0,3	-	-
Metaleko Langileen Bizkaiko Federakuntza Hazinnova ekimena	0,3	-	-
Save the Children. Haurrak eta migratzaileak babestea Balkanetan	0,3	-	-
Elkargi SGR Hornidura teknikoaren funtsa indartzea	-	0,1	0,2
Euskampus fundazioa. Campuseko Bikaintasuna indartzea	0,3	-	-
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, SA Zaharberritze lana	0,3	-	-
Azti Fundazioa, Neiker, EHU eta Leartiker. (Lanbide prestakuntza).....	0,1	-	0,2
Tecnalia Fundazioa Kultur-ind. eta sorm. ind. berrikuntza eta eskualdatze teknologikoa.....	0,3	-	-
Materials Physics Center elkarteak. Partikulen bizkortze eta neutroik. ikerketa	-	0,3	-
0,3 baino txikiago diren beste batzuk.....	5,3	0,5	0,1
GUZTIRA	13,6	5,2	8,9

A.6 INBERTSIO ERREALAK

2018ko ekitaldian kapitulu honen kargura egindako inbertsioak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	OBLIGAZIO AITORTUAK 2018	2017	KONPROMISO KREDITUAK
Erabilera orokorrerako inbertsioak	1,2	3,8	0,8
Ondare historiko, artistiko eta kulturalako ondasunak.....	0,1	-	-
Lursailak eta ondare naturalak	5,3	8,0	0,1
Eraikuntzak.....	51,3	37,9	46,5
Instalazio teknikoak, makineria eta lanabesak	12,4	12,3	1,1
Altzariak	3,4	4,3	0,2
Informazio prozesuetarako ekipoak	8,3	7,9	-
Garraio gaiak.....	0,8	0,3	-
Beste ibilgetu material bat	1,2	0,5	-
Industria jabetza, eskualdatze eskubideak.....	0,1	0,1	-
Aplikazio informatikoak.....	11,6	13,5	1,7
INBERTSIO PROPIOAK	95,7	88,6	50,4
Beste erakunde publiko batzuetarako kudeatutako inberts.(*)....	82,9	113,4	549,9
GUZTIRA	178,6	202,0	600,3

(*) Sartuta dago ETSBren Gipuzkoako bide zatia egikaritzea.

Euskadin trenbide sare berria eta Bilboko hegoaldeko tren saihebidia

Estatuko Administrazio orokorrak, EAeko Administrazio orokorrak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak (ADIF) 2006ko apirilaren 24an lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, ETSB (Euskal Y-a) eraikitzeak. Hitzarmenaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak arduratu zen Gipuzkoako Bergara-Irun adarraren obretako proiektuak idazteaz eta egikaritzea kontratatzeaz, bai eta Donostiako hirian txertatzeko bide zatiaz ere. Hasieran, obren kostu aurreikusia 1.642 milioi euro zen, 2006-2010 aldirako; hor sartuta zeuden obrak egikaritzeko behar ziren ondasun eta eskubideak desjabetzea finantzatzeko 43 milioi euro. Hitzarmena 2017ko abenduaren 27an aldatu zen, jarduera gehigarri batzuk barne hartzeko. Aldaketa honek guztira 2.343,4 milioi euroren kostua eragingo zuela balioetsi zen.

Eusko Jaurlaritzak, 2006ko ekainaren 27ko GKEz, ETSBren esku utzi zituen Euskal Y-ari dagozkion eraikuntza proiektuak idazteko, obra zuzentzeko, beharrezko laguntza teknikoetako eta desjabetze espedienteen administrazio kudeaketan laguntzeko jarduerak, 2006-2010 aldian, guztira 114,1 milioi euroren zenbatekoan. Amaitu ostean, 2011ko uztailaren 12ko GKE bidez, beste mandatu bat onartu zen 2011-2015 aldirako, zeinak 2017ra arte sei aldaketa izan zituen, aurreikusitako egikaritzea epeak eta kostuak egokitzearen.

2018ko ekitaldian beste bi aldaketa gehiago onartu dira. Zazpigarren aldaketa 2018ko martxoaren 6ko GKE bidez onartu zen eta helburua da agindutako lanak egokitzea aurrez aipatutako 2017ko abenduaren 27an izenpetutako jatorrizko lankidetzaren hitzarmenaren aldaketan ezarritako baldintzetara; azken aldaketa honetan 2011-2025 indarraldia finkatu zen eta lanen balorazio berria egin. Obren proiektua idazteari, zuzendaritzari eta laguntza emateko hainbat egitegori buruzko lanez gain, mandatuaren aldaketak jasotzen duen

berritasuna da ETSk lizitatu dituela gehitu diren jarduketetako obrak, bai eta Hernani-Astigarraga bide zatian egin beharreko obra guztien egikaritza ere.

2018ko abenduaren 26ko GKE bidez onartutako zortzigarren aldaketan 146,6 milioi euroan gaurkotu da agindutako lanen balorazioa eta obren egikaritza kostua 2.119,8 milioi euroan balioetsi da 2011-2025 aldirako.

Kostu hauei gehitu behar litzaieke 2010eko ekitaldira arteko egiazko egikaritza (223,7 milioi euro), 2025era arte aurreikusitako azken kostua 2.490,1 milioi euro izango delarik.

Honako taulan xehakaturata dago bide zatietako bakoitzean 2018ko abenduaren 31 arte egindako kostua:

KONTZEPTUA	URTEA	Euroak, milioikotan				
		ESLEIPENA		EXEKUZIOA		
		ZENBAT. (1)	GORAB. 2)	2018(3)	AURR. URT.	GUZTIRA
Ordizia-Itsasondo zatia (2012an bukatua)	2007	51,0	13,2	-	64,2	64,2
Tolosako zatia (2017an bukatua)	2009	81,7	23,0	-	104,7	104,7
Legorretako zatia (2014an bukatua).....	2009	70,2	25,0	-	95,2	95,2
Beasain Ekialdea zatia (2012an bukatua).....	2009	45,2	9,9	-	55,1	55,1
Beasain Ekialdea zatia (2015ean bukatua).....	2009	44,2	13,0	-	57,2	57,2
Bergara-Antzuola zatia (2017an bukatua)	2010	109,5	29,7	(0,4)	139,6	139,2
Andoain-Urnieta zatia (2017an bukatua)	2010	77,1	12,7	-	89,8	89,8
Tolosa-Hernalde zatia (2014an bukatua)	2010	106,4	18,5	-	124,9	124,9
Urnieta-Hernani zatia	2010	139,3	8,7	0,4	132,6	133,0
Ezkio Itsaso – Beasain zatia (2015ean bukatua).....	2010	57,9	13,6	-	71,1	71,1
Antzuola – Ezkio Itsaso Mendebaldea zatia	2010	122,0	35,7	14,7	141,3	156,0
Bergara-Bergara zatia (2017an bukatua).....	2011	97,1	8,0	-	105,1	105,1
Antzuola-Ezkio/Itsaso ekial. zatia (azken ziurt. zain)....	2011	128,5	14,4	3,7	139,2	142,9
Ezkio Itsaso–Ezkio/Itsaso zatia (2017an bukatua).....	2011	57,7	7,2	-	64,9	64,9
Hernani-Astigarraga (2018ko ebazpena) (4)	2011	73,3	(34,5)	6,0	32,8	38,8
Zizurkil-Andoain zatia	2012	184,4	0,8	34,9	142,5	177,4
Hernalde-Zizurkil zatia.....	2012	162,1	3,6	13,0	141,6	154,6
Beste gastuak (Euskaltel, Iberdrola, Naturgas, etab.)...				-	5,2	5,2
OBRAK ETA BESTELAKO GASTUAK, GUZTIRA		1.607,6	202,5	72,3	1.707,0	1.779,3
ETSri kudeaketaren ardura ematea.....				5,6	181,1	186,7
EUSKAL Y, GUZTIRA 2018-12-31				77,9	1.888,1	1.966,0

(1) Esleipenaren zenbatekoa, 2010eko eta 2012ko ekitaldietan BEZaren zerga tasaren aldaketek izandako gorabeherarekin eguneratua.

(2) Kontratuetan izandako gorabeheren guztizkoa jasotzen du: aldagetak, prezioen berrikusteak, azken ziurtagiria, larrialdia, gastu baliozkotutak, segurtasunagatik ordaindutako gastuak, kalte-ordainak, obra osagarriak eta abar.

(3) Azken likidazio negatiboak barne hartzen dituzte.

(4) 2018ko egikaritzak 4,1 milioi euroren zenbatekoa jasotzen du kontratua suntsitzetik eratorritako kalte-ordainengatik.

2017ko uztailaren 12an lankidetzaz hitzarmena izenpetu zen Estatuko Administrazio Orokorraren, ADIFen eta EAeko Administrazio Orokorraren artean, zeinaren indarrez azken honek hartu baitzuen Bilboko hegoaldeko tren saihebidetaren proiektuak idatzi eta obren egikaritzak kontratatzeko ardura; obra honen helburua da Bilboko portuko salgaien joan-etorria erraztea, izan ere, portuak izandako zabalketa eta demanda-igoeraren ondorioz, euskal Ya eraikitzeak izan dezakeen trafiko handitzearekin batera, beharrezkotzat jotzen da salgaien saihebidetarekin egitea, inguruko lineen trafikoa arinduko duena. Obra hauek finantzatzeko dirak egindako gastua kupotik murriztuta.

Berebat, ETSrekin ere kudeatzeko mandatu bat izenpetu zen, Bilboko hegoaldeko tren saihebidetako lanak egikaritzeko. Mandatuaren azken aldaketaren ondoren, 2018ko abenduaren 26ko GKE bidez onartutakoa, obren kostu zenbatetsia 465 milioi eurora igo da 2018-2022 aldirako. 2018ko ekitaldian egindako kostua 944.135 euro izan da.

A.7 FINANTZA-AKTIBOEN GEHIKUNTZA

Hauek dira xehetasunak, gastu kontzeptuak aintzat hartuta:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	OBLIGAZIOAK AITORTUAK	KONPROMISO KREDITUAK
Mailegu eta aurrerakinak toki erak., enpresa pribatuei eta familiei, epe luz.	10,9	26,6
Gauzatu programa.....	10,8	26,6
Berriker programa.....	0,1	-
EAeko sektore publikoko enpresei maileguak eta aurrerakinak	10,0	-
VISESA.....	10,0	-
Mailegu eta aurrerakinak, EAeko sektore publikoen partaidetza duten enpresei	0,6	-
Partaidetzazko mailegua, Bilbao-Ría 2000ri.....	0,6	-
Mailegu eta aurrerakinak, langileei	4,8	-
Ekarpenak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei	23,9	-
Finantzen Euskal Institutua.....	20,0	-
Euskal Irrati Telebista.....	3,9	-
Sozietate publikoen akzioak erostea	29,4	-
Eraldaketa lehiakorrerako sozietatea		
Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. (SPRI).....	28,9	-
Euskadiko Orkestra SA.....	0,5	-
Partaidetzazko enpresen akzioak erostea	18,0	-
Bilbao Exhibition Centre SA.....	17,5	-
Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna.....	0,5	-
GUZTIRA	97,6	26,6

2018/12/26ko GKE bidez VISESA sozietate publikoari 8 urtetan ordaintzeko 10 milioi euroren mailegu bat ematea onartu zen, % 0,885eko interes tipoarekin. Epe luzeko finantzaketa honek bide eman du aurrekontuz kanpoko diruzaintzako aurrerakinak kitzatzeko, zeinak urtero berritzen baitziren sozietatearen egoitza eta saltzeke zeuden etxebizitzak finantzatzeko helburuarekin (ikus A.2 eta A.14).

Finantzen Euskal Institutuaren Gizarte Funtza 20 milioi euroren zenbatekoan handitu da, partaidetzak erosi eta enpresei maileguak emateko.

Maiatzaren 8ko 70/2018 Dekretu bidez, baimena eman zen Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAn (SPRI) Kutxabanken jabetzakoak ziren partaidetzak erosteko, 3,4 milioi euroren zenbatekoan.. Partaidetza molde honekin, EAEn Administrazio Orokorrak sozietatearen kapital sozialaren % 100aren jabetza hartu zuen, EAEOlen sortutako SPRI-Enpresa Garapeneko Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde berriari atxikiko zaizkionak. Azaroaren 13ko 163/2018 Dekretu bidez, EAEn Administrazioari baimena eman zitzaion partaidetza har zezan kapital zabalkuntza batean, 25,5 milioi euroren zenbatekoarekin.

Maiatzaren 15eko 7/2018 Dekretu bidez, EAEn Administrazioari baimena eman zitzaion partaidetza har zezan Bilbao Exhibition Centre sozietatearen kapital zabalkuntza batean, 17,5 milioi euroren zenbatekoarekin. Dekretu horrek berak ere zabalkuntza aurretik baimena eman zuen kapital soziala murrizteko akzioak 16 euroren balio nominala izan arte, ondare-oreka berrezartzeko helburua tarte.

A.8 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hauak dira 3. kapituluan aitortutako sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBATZEKO ZAIN
Eskola jantokien sarrerak.....	60,1	-
Trafiko isunak eta zehapenak.....	28,6	9,6
Hainbat ikastetxetako zerbitzuengatiko sarrerak.....	12,8	-
Beste tasa batzuk (portuak, titulu akademikoak eta beste)	11,3	0,5
Itzulketak	10,3	0,5
Higiezinen errentamendua	8,1	2,6
Bestelako isun eta zehapenak	7,3	2,8
Premiamenduko gaikarga	4,2	3,7
Kanonak, emakidak eta askotariko zerbitzuak.....	4,0	2,3
Obra publikoen zuzendaritza eta ikuskatzea.....	3,9	0,1
Hezkuntza, hautapen eta ostalaritza zerbitzuak.....	3,7	-
Exekutututako abalengatiko sarrerak.....	2,8	1,3
Beste prezio publiko batzuk	2,8	-
Berandutza interesak	2,5	0,6
Telelaguntza	2,1	0,2
Etxebizitzan, garajeen, eranskinen eta lokalen salmenta	1,8	0,1
Azalera eskubidea sustapen itunduetan	1,1	-
Bestelako sarrerak.....	2,6	0,3
GUZTIRA	170,0	24,6

Betearazteko bidean dauden trafiko isunengatik 2018ko abenduaren 31n kobratzeke dagoen zenbatekoa 7,7 milioi euro da; eta premiamendu errekaragatik, 3,7 milioi euro. Nekez kobratu ahalko direnez, zenbateko horren % 50 kendu da erabilgarri dagoen diruzaintzako geldikina kalkulatzeko.

A.9 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO SARRERAK

Hauek dira sarrera aitortuak eta haien kobrantzak, 2018ko ekitaldian:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	2018		2017
	AITORTUA	KOBRATUA	AITORTUA
Foru aldundietatik	9.997,5	9.714,6	9.833,0
Estatuko Administrazioetik	29,4	28,2	37,5
Finantza autonomia duten zentroetatik	8,8	8,8	10,0
Europar Batasunetik	63,2	64,2	63,1
Beste transferentzia batzuk	0,7	0,7	0,7
TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO SARRERAK GUZTIRA	10.099,6	9.815,5	9.944,3

FORU ALDUNDIEN EKARPENAK

2018ko ekitaldiari zegozkion ekarpenak Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren 2019ko otsailaren 14ko bilkuran onartu ziren behin betiko. Likidazio horretan, ekitaldian bildutako zerga sarrerak hartzen dira aintzat.

2018KO EKARPENAK	Euroak, milioikotan
EKARPEN OROKORRA	9.366,2
Arabako LH (% 16,44)	1.539,8
Gipuzkoako LH (% 33,19)	3.108,6
Bizkaiko LH (% 50,37)	4.717,8
EKARPEN BEREZIAK	631,3
Arabako LH (% 16,44)	103,8
Gipuzkoako LH (% 33,19)	209,5
Bizkaiko LH (% 50,37)	318,0
2018KO EKARPENAK, GUZTIRA	9.997,5

Aipatutako likidazioan 133,7 milioi euroren Doiketa Funtz Orokor bat eratu zen, Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatua (39,1 eta 94,6 milioi euro, hurrenez hurren). Izan ere, banatzekoa den diru bilketa osoan duten parte hartze erlatiboa txikiagoa izan da haien koefiziente horizontalaren % 99 baino. Administrazio orokorrak funtsera egindako ekarpen modura erregistratu du 93,7 milioi euroren zenbatekoa.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 KAPITAL TRANSFERENTZIENGATIKO SARRERAK

Hauek dira kapital transferentziengatiko sarreren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	AURREKONTUA 2018	AITORTUA 2018	AITORTUA 2017
Euskadiko sektore publikoko toki erakundeetatik	0,5	0,5	3,5
Estatuko Administrazioetik	161,4	73,6	106,0
Kanpo sektore publikotik (EB).....	52,7	32,3	27,5
GUZTIRA	214,6	106,4	137,0

Estatuaren Administrazioetik egindako transferentzietan, zenbateko erregistratua 73,6 milioi euroren sarrerei dagokie. Zenbateko hori kupoaren konpentsazioaren bidez jasotzen da, ETSBren obrak eta Bilboko hegoaldeko tren saihebidia finantzatzeko.

Hauek dira Europar Batasunetiko sarreren xehetasunak, funts motaren arabera sailkatuta:

EUROPAR BATASUNETIK JASOTAKO SARRERAK	Euroak, milioikotan	
	AITORTUA 2018	AITORTUA 2017
FEDER	21,9	3,0
FEADER	9,9	9,8
Europako Arrantza Funtsa	-	6,9
FEAGA	0,5	5,4
FEMP programa operatiboa 2014-2020.....	-	2,4
GUZTIRA	32,3	27,5

1994-2018 aldiaren guztira jasotako Europar Batasuneko funtsak 2.701,3 milioi euroren sarrerak sortu dituzte. Horietatik 597,2 milioi euro Europar Batasunak ikuska ditzake.

A.11 FINANTZA-AKTIBOEN GUTXITZEA

Hauek dira finantza-aktiboen aldakuntzagatiko sarreren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	2018		2017
	AITORTUA	KOBRATUA	AITORTUA
Ondarea itzultzea / Akzioen salmenta	1,6	1,6	-
Beste mailegu batzuk itzultzea	3,5	3,5	3,4
Bideratu, Gauzatu eta lkerketako itzulketak	9,5	5,5	11,3
Foru aldundien mailegua amortizatzea.....	3,6	3,6	3,6
Langileei epe laburrera emandako kredituak	5,3	5,3	5,5
GUZTIRA	23,5	19,5	23,8



2013ko maiatzaren 5eko Gobernuaren Kontseiluak onartu zuen foru aldundiekin 3 mailegu formalizatzea inbertsio-jarduerak eta proiektuak finantzatzeko. 2018an erregistratutako diru-sarrera Gipuzkoako Foru Aldundiari emandako maileguaren azken urtekoari dagokio. Araba eta Bizkaiko foru aldundiek alde aurretik amortizatu zituzten maileguak 2016ko ekitaldian.

A.12 KOB RATZEKE ETA ORDAINTZEKE DAUDEN HONDARRAK

Aurreko ekitaldietako eragiketengatiko ekitaldiko emaitza hau da:

AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN DEFIZITA	Euroak, milioikotan
Ordaintzeke dauden gastu hondarren deuseztatzeak	8,0
Kobratzeke dauden sarrera hondarren deuseztatzeak	(11,9)
GUZTIRA	(3,9)

Ordaintzeke dauden gastu hondarren deuseztatzeak, 8 milioi eurorenak, dirulaguntzei dagozkie, eta sorburu hauek dituzte: galdatutako baldintzen ez-betetzeak; diruz lagundutako jarduketa ez egitea; aurreikusitakoak baino inbertsio txikiagoak egitea; onuradunek uko egitea emandako dirulaguntzari; eta abar.

Kobratzeke dauden sarrera hondarren deuseztatzeak hauek dira:

DEUSEZTATZEAK	Euroak, milioikotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Likidazio deuseztatzea eta akatsak.....	0,7
Kaudimengabeziak	10,5
Preskribitza	0,6
Geroratzeak eta jenerotako kobrantzak	0,1
GUZTIRA	11,9

Kaudimen gabeziengatiko deuseztatzeak lehiaketa-prozeduren eta sozietateen likidazioen ondorioz gertatu dira, bai eta egikaritutako abalengatik ere. Kobratzeke zeuden saldoak kobraezin deklaratu dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 DIRUZAINNTZA

2018ko abenduaren 31n, Jaurlearitzak kontuen xehetasun hauek ditu:

DIRUZAINNTZA	Euroak, milioikotan	
	KOPURUA	SALDOA 18.12.31n
Kontu operatiboak	38	1.447,6
Fidantza kontuak	2	9,4
Gordailu kontuak	1	2,0
KONTU ZENTRALAK GUZTIRA	41	1.459,0
Gastuen kontu baimenduak	60	63,2
Sarreraren kontu baimenduak	10	1,5
Fidantzen kontu baimenduak	3	2,0
Atzerriko diruko kontuak	6	0,2
ZENTRALDU GABEKO KONTUAK GUZTIRA	79	66,9
GUZTIRA	120	1.525,9

Gainera, badira 985 kontu baimendu, finantza autonomiaren araubideko ikastetxeei dagozkienak, eta 36 kontu, hezkuntza zerbitzu periferikoenak.

2018ko ekitaldian aplikatutako interes tasak % 0 izan dira ekitaldi osoan. Interes tasa horiek 3 hilabeterako Euriborraren erreferentzia dute, oinarritzko 10 puntu kenduta.

Eusko Jaurlearitzaren kontu zentralen batez besteko saldoa 1.311,1 milioi euro izan da, eta 2017ko ekitaldian zegoena baino 312 milioi euro gehiago da.

A.14 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

Aurrekontuz kanpoko eragiketetan sartuta daude Administrazioak hirugarrenen kontura egiten dituen kobrantza eta ordainketak, aldi batez aurrekontu-egoztearen zain daudenak, funtsen gordailuko kontsignatzeak eta egiaz ordaindu aurretiko nomina atxikipenak.

ZORDUNAK	Euroak, milioikotan			
	SALDOA 18.01.01	KOBRAN. 2018	ORDAINK. 2018	SALDOA 18.12.31
KONTZEPTUA				
Foru aldundiak, BEZaren aitopenengatik	0,3	4,0	4,1	0,4
EIBMren konpentsazioengatik zorra	325,8	54,3	-	271,5
Gizarte Segurantzaren zordunak	0,1	0,1	0,3	0,3
Langileria (bidaia gastuetarako aurrerakinak, nomina eta beste)	2,2	4,4	4,7	2,5
Askotariko zordunak	3,6	7,8	5,3	1,1
Epe laburreko ezarpenak	1,7	-	-	1,7
Sozietate publikoei aurrerakinak	22,7	22,7	-	-
Fidantzak eta gordailuak	7,7	0,8	0,2	7,1
GUZTIRA	364,1	94,1	14,6	284,6

“EIBMren konpentsazioengatik zorra”ren saldoa Estatuak aurreko urteetako BEZaren doiketa kontzeptuan zor duen zenbatekoari dagokio; zor hori berdinduko da 2021 arte adostutako ordainketen egutegiaren arabera.

“Sozietate publikoei aurrerakinak” zor kontuak ekitaldi hasieran 2008ko ekitaldiaz geroztik VISESARI emandako aurrerakinak jasotzen zituen, bere egoitza soziala erosteko aldi baterako finantzaketarako. Abenduaren 27an baliogabetu egin zen aurrekontuz kanpoko aurrerakin hau eta haren tokian 10 milioi euroren mailegu bat izenpetu da 8 urtetarako (ikus A.7 eta A.2).

HARTZEKODUNAK	Euroak, milioikotan			
	SALDOA 18.01.01	KOBRAN. 2018	ORDAINK. 2018	SALDOA 18.12.31
KONTZEPTUA				
Estatuaren Administrazioa, elkarrekiko apustuengatik etabesterengatik	1,7	110,1	108,6	3,2
Administrazio publikoa Atxikipenak	141,4	1.320,7	1.288,6	173,5
Ogasun publikoa, BEZagatik hartzekodun	-	2,6	2,5	0,1
Foru aldundiak, zerga atxikipenak	29,9	306,0	297,2	38,7
Gizarte Segurantzako erakundeak, nominako kontzeptuengatik	110,1	993,5	972,1	131,5
Mutualitateak eta beste, nomina atxikipenagatik	1,3	9,0	9,2	1,1
Elkarkidetza eta Itzarri	0,1	9,6	7,6	2,1
Organismo autonomo administratiboak	475,8	4.188,3	4.101,4	562,7
HABE	6,3	42,2	40,9	7,6
IVAP	10,3	18,4	17,1	11,6
EUSTAT	2,5	13,7	12,7	3,5
EMAKUNDE	2,5	5,3	5,8	2,0
AVPE	5,7	14,9	15,3	5,3
OSALAN	12,0	12,1	12,3	11,8
KONTSUMOBIDE	3,2	6,0	6,3	2,9
LANBIDE, EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	185,4	233,1	206,6	211,9
LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA	0,6	5,9	1,2	5,3
GOGORA, MEMORIAREN, BIZIKIDETZ. ETA GIZA ESKUBIDEEN INST. 0,4	2,1	2,0	0,5	
FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA	173,7	77,8	73,0	178,5
OSAKIDETZA	73,2	3.756,8	3.708,2	121,8
Europar Batasuna: FSE, FEAGA, EGEF eta Kohesio Funtsa	1,9	2,6	4,3	0,2
Bestelako hartzekodunak	6,0	13.466,3	13.436,9	35,4
Kreditu erakundeekiko epe laburreko maileguak	-	1.450,0	1.450,0	-
Jasotako fidantzak eta gordailuak	99,1	42,4	21,1	120,4
GUZTIRA	725,9	20.580,4	20.410,9	895,4

Diruzaintzako beharrak estaltzeko, Eusko Jaurlaritzak ekitaldian 3 kreditu lerro izan ditu, zenbateko erabilgarria gehienez 800 milioi euro eta 12 hilabeteko indarraldia izanik; interes tasak askotarikoak izan dira, ekitaldian zehar aldatu direnak. 2018ko abenduaren 31n, kreditu kontuek ez zuten saldorik erabili.

2018an erabilitako batez besteko saldoa 350,3 milioi euro izan da, eta finantza gastuak 283.892 euro izan ziren.



A.15 ZOR PUBLIKOA

2018ko ekitaldian, zirkulazioko jaulkipenen eta maileguen baldintza nagusiak honako hauek izan dira:

JAULKITAKO ZORRA		Euroak, milioikotan					
JAULKIPEN/HARPIDETZA	BALIOA 2018.12.31n				INT. TASA (%)		AMORTIZ.
DATA	JAULKIPENA	AMORT.	NOMINALA	AMORT. KOST.	NOMINALA	ESKUDIRUA (a)	DATA
28.10.09 (b).....	-	266,7	433,2	432,9	% 4,15	% 4,22	19.10.28
11.12.09.....	-	-	186,0	185,6	% 4,60	% 4,64	25.01.07
15.06.10.....	-	400,0	-	-	Euriborra 3h+% 1,98	% 1,72	18.06.15
10.10.28 (zabalkuntza 2009-12-11)	-	-	77,0	74,1	% 4,60	% 5,34	25.01.07
20.04.11.....	-	-	82,0	81,4	% 6,38	% 6,71	20.04.21
11.10.27 (zabalkuntza 11.04.20)	-	-	57,5	57,3	% 6,38	% 6,47	20.04.21
12.02.09 (zabalkuntza 11.04.20)	-	-	55,0	55,6	% 6,38	% 5,83	20.04.21
12.03.14 (Zabalkuntza 09.12.11)	-	-	8,6	7,7	% 4,6	% 6,73	25.01.07
12.10.30 (Zabalkuntza 11.04.20)	-	-	69,0	68,3	% 6,375	% 6,87	21.04.20
12.12.30 (Zabalkuntza 09.12.11)	-	-	60,5	52,2	% 4,60	% 7,52	25.01.07
13.01.25 (Zabalkuntza 11.04.20)	-	-	50,0	50,3	% 6,375	% 6,03	21.04.20
13.01.25 (Zabalkuntza 09.12.11)	-	-	170,7	153,6	% 4,60	% 6,67	25.01.07
13.03.26.....	-	-	200,0	199,7	% 4,90	% 4,98	20.03.26
14.03.18.....	-	184,4	-	-	% 2,00	% 2,09	18.07.23
15.04.13.....	-	-	225,0	224,5	% 1,25	% 1,30	23.04.13
15.11.03 (Zabalkuntza 15.04.13)	-	-	100,0	99,1	% 1,25	% 1,47	23.04.13
15.11.24 (Zabalkuntza 15.04.13)	-	-	100,0	99,0	% 1,25	% 1,50	23.04.13
16.03.16.....	-	-	500,0	495,6	% 1,75	% 1,87	26.03.16
16.11.16.....	-	120,0	-	-	% 0,00	-%0,03	18.11.16
16.12.30.....	-	-	190,0	190,0	% 1,466	% 1,47	26.12.30
17.03.16.....	-	-	100,0	100,0	% 1,703	% 1,69	27.04.30
17.04.18.....	-	-	150,0	149,9	% 0,60	% 0,61	22.04.30
17.04.18 (Zabalkuntza 15.04.13)	-	-	75,0	76,3	% 1,25	% 0,85	23.04.13
17.12.18 (Zabalkuntza 17.04.18)	-	-	165,6	167,4	% 0,60	% 0,28	22.04.30
18.02.28 (c).....	197,7	-	200,0	197,5	% 2,50	% 2,58	38.02.28
18.06.15 (c).....	496,7	-	500,0	495,2	% 1,45	% 1,57	28.04.30
18.12.05 (Zabalk.18.02.28) (b)(c)	201,5	-	197,0	200,9	% 2,50	% 2,50	38.02.28
18.12.05 (Zabalk.16.03.16) (b)(c)	73,1	-	69,7	73,0	% 1,75	% 0,28	26.03.16
ZOR JAULKIPENAK	969,0	971,1	4.021,8	3.987,1			

- (a) Soilik kalkulatu da interes tasa efektiboa nominalaz besteko jaulkipen prezioa duten maileguetarako eta zor jaulkipenetarako, edota kokatze edo irekiera komisioak ordaindu direnean. Gainerako kasuetan, interes tasa efektiboa aplikatzeak ez du alderik eragiten interes tasa nominala ezartzearekiko.
- (b) Aldez aurretik amortizatua 18.12.05eko jaulkipenen truke bidez, zeinak 18.02.28ko eta 16.03.16ko jaulkipenen zabalkuntzak baitira.
- (c) Ekitaldian jaulkitako zorraren jaulkipen prezioak 2,3 milioi euroren prima garbia eragin du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

MAILEGUAK

Euroak, milioikotan

DATA	ERABILIA	BALIOA 18-12-31N			INT. TASA (%)		AMORTIZ. DATA
		AMORT.	NOMINALA	AMORT. KOST.	NOMINALA	ESKUDIRUA (a)	
08.12.01.....	-	7,5	82,5	82,5	% 0,313		29.04.30
08.12.01.....	-	2,5	27,5	27,5	% 0,321		29.05.11
09.04.20.....	-	2,5	27,5	27,5	% 0,22		29.07.31
09.10.07.....	-	-	125,0	124,6	% 4,646	% 4,707	24.10.07
09.11.24.....	-	11,7	128,3	128,3	% 0,471		29.02.02
09.12.21.....	-	-	45,0	44,9	% 4,3	% 4,361	22.07.07
09.12.21.....	-	-	30,0	30,0	% 4,6	% 4,629	25.01.07
09.12.22.....	-	100,0	-	-	Euribor 3 m+% 0,62		18.01.07
10.06.21.....	-	-	100,0	100,0	Euribor 3 m+% 1,75		22.10.24
10.06.22.....	-	-	110,0	109,5	% 4,8	% 5,095	20.06.22
10.10.22.....	-	-	60,0	60,0	Euribor 3 m+% 1,16		25.10.22
10.12.23.....	-	-	150,0	150,0	Euribor 3 m+% 1,1		21.12.31
11.09.30.....	-	37,5	187,5	187,5	% 0,299		23.10.18
11.11.17.....	-	-	25,0	25,0	Euribor 12 m+% 1,01		24.12.04
11.12.14.....	-	-	27,2	27,2	Euribor 3 m+% 1,47		22.05.31
11.09.30 (BEI 2. zatia).....	-	12,5	75,0	75,0	% 0,223		24.02.15
12.04.16.....	-	6,0	-	-	% 4,99		18.04.16
12.04.23.....	-	-	140,1	139,9	Euribor 6 m+% 1,82%	1,690	22.10.23
12.05.11.....	-	-	50,0	50,0	Euribor 3 m+% 1,47		22.05.31
12.07.27 (BEI 1. zatia).....	-	32,5	195,0	195,0	% 0,105		24.08.17
12.07.27 (BEI 2. zatia).....	-	25,0	150,0	150,0	% 0,131		24.09.18
13.03.19.....	-	-	65,9	65,9	Euribor 3 m+% 1,47		22.05.30
13.11.07.....	-	5,9	88,2	88,2	Euribor 3 m+% 0,298		33.11.28
13.11.11.....	-	-	100,0	100,0	% 1,3		20.01.31
13.11.18.....	-	-	50,0	50,0	Euribor 3 m+ % 1,04		20.12.31
14.02.25.....	-	-	250,0	250,0	Euribor 3ó6m+% 1,15		
14.02.28.....	-	-	300,0	300,0	Euribor 6m+% 0,562		26.11.15
14.12.04.....	-	-	150,0	150,0	Euribor 3 m+% 1,22		23.12.04
14.12.04.....	-	-	231,3	231,3	% 1,3		19.11.25
14.12.04.....	-	-	231,3	231,3	% 1,3		20.01.29
14.12.22.....	-	-	15,0	15,0	Euribor 6 m+% 0,98		22.12.31
14.12.22.....	-	-	50,0	50,0	Euribor 6 m+% 0,85		21.12.22
14.12.30.....	-	-	25,0	25,0	Euribor 3 m+% 0,92		19.09.30
15.02.23.....	-	-	115,0	115,0	Euribor 3 m+% 0,94		24.02.28
15.02.24.....	-	-	200,0	200,0	% 1,537		24.02.24
15.02.25.....	-	-	100,0	100,0	Euribor 6 m+% 0,49		20.02.25
15.05.18.....	-	-	200,0	200,0	Euribor 3 m+% 0,99		24.06.30
15.12.16.....	-	-	75,0	75,0	Euribor 6 m+% 0,72		22.12.31
15.12.18.....	-	-	50,0	50,0	% 1,307		21.12.18
16.04.22.....	-	-	100,0	100,0	Euribor 6 m+% 0,74		24.04.30
16.04.22.....	-	-	50,0	50,0	% 0,478		21.04.22
16.04.25.....	-	-	100,0	100,0	% 1,449		25.04.25
16.12.29.....	-	-	50,0	50,0	Euribor 6 m+% 0,6		24.10.29
17.03.08.....	-	-	100,0	100,0	% 1,7		27.03.08
17.03.09.....	-	-	100,0	100,0	% 1,62		27.03.09
17.03.10.....	-	-	70,0	70,0	% 1,07		24.03.11
17.03.10.....	-	-	50,0	50,0	% 1,346		25.03.10
17.03.16.....	-	-	100,0	100,0	Euribor 3m +% 0,88		28.03.20
17.08.03 (BEI 1. zatia) (b).....	-	-	60,0	60,0	Euribor 6 m+% 0,183		42.12.22

.../...



.../...

MAILEGUAK		Euroak, milioikotan				
DATA	ERABILIA	BALIOA 18-12-31N		INT. TASA (%)		AMORTIZ. DATA
		AMORT.	NOMINALA	NOMINALA	ESKUDIRUA (a)	
18.03.09.....	50,0	-	50,0	50,0	% 1,2782	27.03.09
18.03.12.....	100,0	-	100,0	100,0	% 1,29	27.03.31
18.03.12.....	100,0	-	100,0	100,0	% 1,626	30.03.12
18.03.16.....	50,0	-	50,0	50,0	% 0,392	23.03.16
MAILEGUAK	300,0	243,6	5.112,3	5.111,1		
ZOR JAULKIPENAK	969,0	971,1	4.021,9	3.987,1		
10.12.31 (Euskampus).....	-	0,3	2,5	2,5	% 1,414	25.12.31
ZORPETZEA, GUZTIRA	1.269,0	1.215,0	9.136,7	9.100,7		

(a) Soilik kalkulatu da interes tasa efektiboa nominalaz besteko jaulkipen prezioa duten mailegetarako eta zor jaulkipenentarako, edota kokatze edo irekiera komisioak ordaindu direnean. Gainerako kasuetan, interes tasa efektiboa aplikatzeak ez du alderik eragiten interes tasa nominala ezartzearekiko.

(b) 2017an formalizatutako mailegua, ekitaldi itxieran erabiltzeko 140 milioi euroren zenbatekoa zuelarik.

«Amortizatutako kostua» zutabeak ekitaldia ixtean zorrak eta maileguez zuten balioa jasotzen du, EAEKPPren finantza-pasiboei buruzko 9. balioztatze arauari jarraituz.

Sarreren aurrekontuaren 9. kapituluak 4,7 milioi euroren kontu-saila ere jasotzen du, Hezkuntza Ministerio eta Lanbide Prestakuntzatik jasotako aurrerakinari dagokiona, Europako Gizarte Funtsak oinarrizko lanbide prestakuntza ezartzeko (abenduarien 9ko 8/2013 Lege Organikoak ezarritakoa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko) kofinantzaketarako prozedura arautzen duen hitzarmenaren indarrez. Hitzarmenaren 3. klausulak agintzen du aipatutako Ministeriotik jasotako aurrerakina sarreren 9. kapituluari aplika dakiola eta Europako Gizarte Funtsaren aurrean aitortutako gastuen itzulketa jasotzen denean, dagokion kopuruko transferentzia bat erregistra dadila, aurrerakinaren kontzeptuarekin erregistratutako zorra kitatuaz.

ZORPETZEAREN BILAKAERA, 2018	Euroak, milioikotan
Egindako mailegu amortizazioak	(243,6)
Euskampus maileguaren amortizazioa	(0,3)
Zor publikoaren amortizazioa	(971,1)
AMORTIZAZIOAK, GUZTIRA	(1.215,0)
Zor publikoaren jaulkipenak (Nominala).....	966,7
Maileguen formalizazioa eta erabilera (Nominala)	300,0
ZORPETZE BERRIA, GUZTIRA	1.266,7
EKITALDIKO ZORPETZEA HANDITZEA	51,7

Ekitaldian, beste zorpetze eragiketa batzuk egin dira, 1.266,7 milioi eurorenak; izan ere, gehienez 1.377,2 milioi euro baimentzen ditu 2015eko otsailaren 6ko 15/2018 Dekretuak (zor publikoaren jaulkipenak egitea erabakitzen duena eta mailegu eragiketak ituntzea baimentzen duena).

Zorpetzearen igoera balio nominalarekin 51,7 milioi euro da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen Legearen 10.1 artikulua baimentzen dituen 429,3 milioi euroren aldean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Administrazioak sarreren aurrekontuko 9. kapituluko eskubide aitortutzat erregistratu du zor publikoaren jaulkipenaren prezioari dagokion zenbatekoa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 3/2003 Zirkularrean ezarritakoari jarraituz. Zirkulazioan jarritako zor publikoaren jaulkipen-primaren zenbateko garbia 2,3 milioi euro izan da. Horrenbestez, zorpetzeagatiko sarreren balio efektiboa 969 milioi euro da.

2018ko ekitaldiko finantza gastua 180,1 milioi euro izan da, honela banakatuta:

FINANTZA GASTUA	Euroak, milioikotan
Mugaegunera iritsitako zorraren interesak	122,5
Mugaegunera iritsitako maileguen interesak.....	54,4
Zorra formalizatzeko gastuak	2,5
ZOR PUBLIKOAREN FINANTZA GASTUA	179,4
Bestelako finantza gastuak	0,7
FINANTZA GASTUAK	180,1

Ekitaldia ixtean, aurrekontuaren likidazioari jarritako oharretan adierazita dagoenez, sortu diren eta mugaegunera iritsi ez diren interesak 88,3 milioi euro dira, eta sartuta daude 2018ko abenduaren 31ko egoera balantzeko «Epe laburreko zorrak» idazpuruan.. Interes horiek interes tasa efektiboa aplikatuz kalkulatu dira.

A.16 EMANDAKO ABALAK

Abalen saldoa, 2018ko abenduaren 31n, eta ekitaldian izandako mugimendua, honako hauek izan dira:

FORMALIZATUTAKO BERMEAK	Euroak, milioikotan				
	SALDOA 18.01.01	ALTAK	BAJAK		SALDOA 18.12.31
			LIBRATUAK	EXEKUT.	
ABALAK					
Enpresen linea	34,4	1,6	12,7	1,0	22,3
Erakunde publikoak	158,8	-	13,1	-	145,7
Luzaro SAri emandako maileguen bermeak.....	64,3	10,0	15,6	-	58,7
BIRFIDANTZAMENDUAK					
Birfidantzamenduak, Luzaro SAri dagokionez.....	32,9	7,8	7,9	0,2	32,6
Elkargi SGR	175,4	17,6	44,7	3,8	144,5
Ikus-entzunezkoa SGR abala	-	-	-	-	-
GUZTIRA	465,8	37,0	94,0	5,0	403,8

2018ko 37 milioi euroren emakidak, nagusiki honako hauek egindako birfinantzamenduenak dira: Eusko Jaurlaritzak, Elkargi SGRk emandako bermeak, 17,6 milioi euroren zenbatekoan, eta Luzaro SAren bitartez enpresa txiki eta ertainei emandako maileguak, 7,8 milioi euroren zenbatekoan. Urtean emandako bermeen guztizkoak betetzen ditu EAeko aurrekontu orokorreko buruzko Legearen 9.1 artikuluan ezarritako legezko mugak.

Eman diren eta mugaeguneratu ez diren abalengatiko arrisku zenbatetsia 27,7 milioi euro da, eta 2018ko abenduaren 31ko egoera balantzeko pasiboaren «Arrisku eta gastuetarako hornidurak» idazpuruan jasota dago.

2018ko abenduaren 31n, EAEren Administrazio orokorrak egikaritutako abalengatik kobratzeke duen saldoa 29,8 milioi euro da: horietatik 1,3 milioi euro, 2018ko ekitaldiari dagozkie; eta 28,5 milioi euro, aurreko ekitaldiei. Saldo hori altxortegiko soberakinetik deskontatuta dago. Milioi bat eurotik gorako zorrak dituzten 6 hirugarreni dagokie saldo osoaren % 86.

A.17 KONPROMISO-KREDITUAK

Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitutako kredituak, kapituluka sailkatuta, hauek dira:

KAPITULUA	Euroak, milioikotan				GUZTIRA
	KONPROMETITUTAKO EKITALDIAK				
	2019	2020	2021	2022 eta hurr.	
1. Langileria-gastuak	7,0	-	-	-	7,0
2. Funtzionamendu-gastuak	172,1	52,6	19,4	11,3	255,4
4. Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	124,1	19,0	0,3	0,0	143,4
6. Inbertsio errealak	106,1	80,9	121,1	373,8	681,9
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulaguntzak	225,2	83,3	35,5	47,1	391,1
8. Aktibo finantzarioen bariazioa	28,8	26,3	23,0	191,3	269,4
GUZTIRA	663,3	262,1	199,3	623,5	1.748,2

Hitzartutako kreditu guztietatik kopuru esanguratsuenak Euskal Herriko Trenbide Sare berria eraikitzeari lotutako inbertsioei dagozkie, 600,3 milioi euroan; hona hemen kreditu horiek: 2019-2025 aldirako ETSrekin kudeatzeko mandatua, 540,2 milioi euroren zenbatekoan; Bilbao Exhibition Centre SAN parte-hartzea, 152,2 milioi euroan; Gauzatu Industria eta Hazitek programak, 34,1 milioi euroren zenbatekoan; eta BERC programa, 2019-2022 aldirako 33,6 milioi euroren konpromiso kredituak dituena.

	KONPROMISO KREDITUAK, JATORRIKO URTEAREN ARABERA				Euroak, milioikotan
	KONPROMETITUTAKO EKITALDIAK				
	2019	2020	2021	2022 eta hurr.	GUZTIRA
2009. urtea eta aurrekoak	20,9	20,6	20,3	113,3	175,1
2010. urtea	20,0	5,8	2,8	8,1	36,7
2011. urtea	6,1	5,7	6,7	14,9	33,4
2012. urtea	12,2	0,6	0,6	2,8	16,2
2013. urtea	3,3	1,6	1,6	13,5	20,0
2014. urtea	2,8	1,5	1,2	18,7	24,2
2015. urtea	38,8	10,2	2,6	18,1	69,7
2016. urtea	44,2	12,2	5,4	19,1	80,9
2017. urtea	126,4	41,9	9,9	15,2	193,4
2018. urtea	388,6	161,8	148,3	399,9	1.098,6
GUZTIRA	663,3	261,9	199,4	623,6	1.748,2

2018ko ekitaldian, aurreko ekitaldietan konprometitutako kredituen deuseztatzeek 71,7 milioi euro egin dute. Deuseztatze garrantzitsuenak hauek izan dira:

- 2019ko urtekoari dagokion 28,8 milioi euroren deuseztatzea, Hernani-Astigarragako bide-zatiko obrena, zegoen kontratua suntsitu izanaren ondorioz. Konpromiso hori beste urteanitzeko batean jaso da, Euskal Herriko Trenbide Sare berria eraikitzeko ETSri egindako mandatuaren zortzigarren aldaketari jarraikiz.
- 16,5 milioi euroren deuseztatzeak, European Spallation Source partzuergoan (ESS-Bilbao) AGCAEk egin beharreko gastua jasotzen duten bi urteanitzekoak aldatzetik eratorritakoak, Estatuaren Administrazio Orokorrarekin 2010eko abenduaren 31n izenpetutako hitzarmenari eta 2017ko abenduaren 29an egindako aldaketari jarraikiz.
- 15,5 milioi euroren deuseztatzeak, Hezkuntza sailburuaren 2018ko urtarrilaren 15eko Aginduari jarraikiz, zeinak EHUrekiko kontratu-programei dagozkien ordainketen banaketa aldarazten baitu.

A.18 KONTRATAZIOA

2018ko ekitaldian 431 kontratazio-espeditu formalizatu dira, 355,4 milioi euroren zenbatekoarekin. Esleitutako zenbatekoak kontratuaren guztizkoari dagozkio, 2018ko urtekorako aurreikusitako gastua zein den alde batera, eta beste ente batzuek kontratu jakin batzuei egindako atxikipenak barne hartzen ditu (argindarraren hornidura, aseguruak, posta bidezko jakinarazpenak), 31 milioi euroren zenbatekoa egiten dutenak.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontratua formalizatu den espedienteen xehakapena sailen arabera honako hau da:

SAILA	Euroak, milioikotan		
	ESPEDIENTE KOPURUA	ESLEIPEN ZENBATEKOA	% ESLEIPEN GUZTI -AREN GAINEAN
Lehendakaritza.....	16	3,4	% 1,0
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua.....	113	47,8	% 13,4
Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak	17	10,5	% 3,0
Enplegua eta Gizarte Politikak	22	23,5	% 6,6
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	24	6,5	% 1,8
Ogasuna eta Ekonomia	11	48,1	% 13,5
Hezkuntza.....	78	79,6	% 22,4
Osasuna	40	36,0	% 10,1
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	6	0,7	% 0,2
Kultura eta Hizkuntza Politika.....	22	1,4	% 0,4
Segurtasuna.....	68	93,4	% 26,3
Lana eta Justizia	14	4,5	% 1,3
GUZTIRA	431	355,4	% 100,0

Kontratu guztietatik, 4 larrialdiz izapidetu dira, 1,6 milioi euroren zenbatekoarekin. Gainerakoetarako, honako prozedura hauek erabili dira:

PROZEDURA	Euroak, milioikotan		
	ESPEDIENTE KOPURUA	ESLEIPEN ZENBATEKOA	% ESLEIPEN GUZT. GAIN.
Irekia	269	304,5	% 86,1
Negoziatua	158	49,3	% 13,9
GUZTIRA	427	353,8	% 100,0

Prozedura negoziatu bidez izapidetutako espedienteetatik 68 Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren esparru-akordioen ondorio dira, guztira 335.770 euroren zenbatekoa egiten dutenak.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Baliozkotutako espedienteak

Jaurlearitzaren Kontseiluak bere gain hartu du Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten negatiboa zuten 76 kontratazio espedienteren aldeko fiskalizazio juridiko eta ekonomikoa. Hona hemen zein sailtakoak diren espediente horiek eta zenbatekoak:

SAILA	Euroak, milioikotan	
	ZENBATEKOA	%, GUZT. GAIN.
Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak	2,5	% 5,8
Hezkuntza	5,1	% 11,8
Enplegua eta Gizarte Politikak	2,0	% 4,7
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	0,8	% 1,9
Ogasuna eta Ekonomia	0,6	% 1,4
Osasuna	19,2	% 44,5
Segurtasuna	8,5	% 19,7
Lana eta Justizia	4,4	% 10,2
GUZTIRA	43,1	% 100,0

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aurkako txostenaren arrazoia da 76 espedienteetan prestazioak egin zirela zegokien kontratu espedientea izapidetu gabe eta publizitate eta lehia printzipioei jarraitu gabe, SPKLTBn ezarritakoari jarraituz bete behar ziratekeenak.

Jaurlearitzaren Kontseiluak baliozkotutako 76 espedienteetatik, zenbateko handieneko 10ak -guztiak 1 milioi eurotik gorakoak- baliozkotutako kopuru osoaren % 68 dira, eta sail eta kontzeptu hauei dagozkie:

KONTZEPTUA/SAILA	Euroak, milioikotan						
	Hezkuntza	Osasuna	Segurtasuna	Lana eta Justizia	Enplegua eta Gizarte Pol.	Garapen Eko. eta azpiegiturak	Guztira
Eskola-umeen garraioa	2,4	-	-	-	-	-	2,4
Anbulantzia egindako garraioa	-	16,8	-	-	-	-	16,8
Hemodialisi zerbitzuak	-	1,2	-	-	-	-	1,2
Pertsonen babesa emateko zerb.	-	-	2,0	-	-	-	2,0
Aplikazioen mantentze-lana	-	-	1,6	2,1	-	-	3,7
Telelaguntza zerbitzua	-	-	-	-	2,0	-	2,0
Gipuzkoako portuen garbiketa	-	-	-	-	-	1,0	1,0
GUZTIRA	2,4	18,0	3,6	2,1	2,0	1,0	29,1

Aztertutako espedienteak

40 espediente aztertu dira: 22 hautatu dira 2018ko ekitaldian esleitutako artetik, eta 18, aurreko ekitaldietan esleitu diren eta 2018an egikaritzea edo eragina izan dutenen artetik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurreko ekitaldietan esleitu diren aztertutako espedienteen zerrenda honako hau da:

		Euroak, milioikotan				
ESP.			ESLEI.	EGIK.	EGIK.	
ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	ZENBAT.	2018	2018.12.31	AKATSAK
1.	Euskal Ya Urnieta-Hernani zatia.....	O	139,3	0,4	133,0	
	Prezioak berrikustea		7,9			
	Segurtasuna		0,8			
2.	Euskal Ya Antzuola – Ezkio Itsaso Mendebaldea zatia	O	122,0	14,7	156,0	
	Prezioak berrikustea		5,6			
	Espediente aldatua		23,8			
	Segurtasuna		0,6			
	Kalte-ordaina		5,7			
3.	Euskal Ya Antzuola – Ezkio Itsaso Ekialdea zatia	O	128,5	3,7	142,9	D1
	Prezioak berrikustea		(3,0)			
	Larrialdia		2,0			
	Aldatuak		11,2			
	Segurtasuna		0,5			
	Amaierako ziurtagiria		3,7			
4.	Euskal Ya Hernani-Astigarraga zatia	O	73,3	6,0	38,8	
	Espediente aldatua		6,8			
	Larrialdia		0,8			
	Osagarria		4,7			
	Kalte eta galeren erreklamazioa.....		2,9			
	Kontratua desegiteagatik kalte-ordaina		1,2			
5.	Euskal Ya Hernialde-Zizurkil zatia.....	O	162,1	13,0	154,6	
	Larrialdia		3,1			
	Obrak hastean berandutzeagatik kalte-ordaina		0,5			
6.	Euskal Ya Zizurkil-Andoain zatia	O	184,4	34,9	177,4	
	Espediente aldatua		0,7			
	Segurtasuna		0,1			
7.	Hernaniko BHIren eraikin berria eraikitzea	O	3,4	0,3	3,7	D2,3
	Amaierako ziurtagiria		0,3			
8.	Bergarako Miguel Altuna GLHBko eraikin berria eraikitzea.....	O	7,3	4,0	8,7	D1,5
	Lehenengo aldaketa		0,3			
	Bigarren aldaketa		0,4			
	Amaierako ziurtagiria		0,7			
9.	Ugao-Miraballezen BHIren eraikin berria eraikitzea.	O	4,4	-	4,4	
10.	Gasteizko Zabalgaran BHIren eraikin berria eraikitzea.	O	8,1	3,1	8,0	D3,4
	Espediente aldatua		0,5			
11.	Güeñesen BHIren eraikin berria eraikitzea.....	O	3,4	0,2	3,6	D1,2
	Amaierako ziurtagiria		0,2			
12.	Bilbon Pagasarribide BHI DBHko 8 unit. ikastetxe berria eraik.	O	3,4	2,7	4,1	D2,5
	Espediente aldatua		0,3			
	Amaierako ziurtagiria		0,4			
13.	Urdulizko Elortza HLHI handitzeko lanak.....	O	3,3	2,6	3,6	
	Amaierako ziurtagiria		0,3			
14.	Zaldibarko LHI handitzea	O	0,6	0,4	0,6	
15.	Zumaiko portuko kanpoko kai-muturra indartu eta konpontz..	O	2,0	-	2,1	D4
	Amaierako ziurtagiria		0,8			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak, milioikotan

ESP.			ESLEI.	EGIK.	EGIK.	
ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	ZENBAT.	2018	2018.12.31	AKATSAK
16.	Bilbon Uretamendi-El Peñascal 740.01 EU 45 etx. sozial eraikitzea	O	3,6	1,3	3,8	
	Aldatuak		0,2			
17.	Santurtziko San Juan Rompeolas kalean 58 ostatu eraikitzea ..	O	3,7	1,8	4,0	
	Espediente aldatua		0,3			
18.	Bilboko Henao k, 9 zk. eraikina zaharberritu eta handitzea	O	7,2	1,1	1,2	
GUZTIRA			944,3	90,2	850,5	

2018ko ekitaldian esleitu diren aztertutako espedienteen zerrenda honako hau da:

Euroak, milioikotan

ESP.			ZENBATEKOA	EGIK.		
ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	Prozed.	ESLEI.	2018	AKATSAK
19.	Donostiako portuan sarbideko hegoald. muturra egonkortz. lanak	O	PGN (1)	0,8	0,6	A1-B4
20.	Orioko portuan dragatze-lanak.....	O	Irekia (2)	1,0	1,0	A2,3
21.	Xixili kaia konpondu eta indartzea; Bermeoko portua zolatu eta kaiko zerbitzuak berrezartzea.....	O	Irekia	2,5	-	B4
22.	Bilboko Iruarteta HLHI ikastetxe berria eraikitzea.....	O	Irekia	4,9	1,5	C2
23.	Gasteizen Errekabarri HLHI ikastetxe berria eraikitzea	O	Irekia	6,2	1,5	C2
24.	Zestoako Arroa Behean HLHI Arroa ikastetxe berria eraikitzea	O	Abierto	2,0	0,6	C1,2
25.	Zumaian Oikia HLHI 3 Unit. ikastetxe berria eraikitzea.....	O	Irekia	1,6	0,3	B2-C1,2
26.	Lemoizen HLHI Lemoizko lehen hezkuntzako eraikina handitzea	O	Irekia	1,4	-	B1,3,4
27.	Bilboko Txurdinagan Zabalbide eta Jesús Galíndez kalea 316 EUko ezpondak egonkortzea.....	O	PGN (1)	0,5	-	B4
28.	EAEko Administrazioari hainbat eraikinetan energia elektrikoa hornitzeko esparru-akordiotik eratorritako bederatzigarren kontratua (**)	Horn	PGN	5,3	-	
29.	Txerto konjugatu antineumokokozikoa 13 Balentearen dosi erosketa (VNC).....	Horn	PGN	3,6	0,7	
30.	Ertzaintzarentzat patruila-ibilgailuen errentamendua	Horn	Irekia	18,7	1,3	
31.	Segurtasun Saileko ibilgailuentzat erregaia	Horn	Irekia	12,0	1,6	
32.	Ikastetxeetan informatikako materiala hornitu, instalatu eta konfiguratzeko esparru-akordioa.....	Horn	Irekia	20,1	-	A8
33.	EAEko Administrazioarako posta bidezko komunikazio zerbitzuak (**)	Z	Irekia	11,7	3,1	A7
34.	EAErentzat telelaguntza zerbitzua	Z	Irekia	19,5	1,9	A7
35.	Laguntza zuzenbide publikoko sarrerak derrig. bidean biltzeko eta zorren gerorapen eta zatikapen ebazpenak tramitzeko.....	Z	Irekia	9,4	1,5	A3,4,6,7-B5
36.	Anbulantzia ez-asistentzialen garraio sanitarioa eta garraio kolektiboa Bizkaiko eta Arabako zati bateko osasun eremuan	Z	Irekia	17,9	11,3	
37.	Euskadiko larrialdiko deiak eta trafikoa artatzeko zerbitzuak	Z	Irekia	5,2	1,5	A4,6,7-B1,5



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak, milioikotan

ESP.	ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	Prozed.	ZENBATEKOA ESLEI. (*)	EGIK. 2018	AKATSAK
	38.	Justizia Leheneratzailearen Zerbitzuari (JLZ) dagozkion prestazioak egikaritzea	Z	Irekia	1,9	0,2	A7-B1
	39.	Hiru lurralde historikoetan familiako bitartekaritzako zerbitzu integrala ematea	Adm. Ber.:	PPN	1,5	0,8	A5
	40.	Hainbat arriskuren aseguruia 6 lote (**).....	Prib.	Irekia	18,1	9,2	A3-B5
		IV. lotearen aldatua: Ibilgailu motordunak			0,3	0,3	C3
GUZTIRA					166,1	38,9	

(*) Esparru-akordioetan eta aleko prezioen espedienteetan gehieneko aurrekontua edo kontabilizatutako kopurua adierazten da.

(**) Kopuruak EAeri dagokion espedientearen zatia soilik barne hartzen du.

Kontratu motaren erreferentziak: L: Obrak, Horn.: Hornidurak, Z: Zerbitzuak, Adm. Ber.: Administrazioko Berezia eta Prib.: Pribatua.

Prozedura: PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua eta PN Publikotasundun negoziatua.

Tramitazioa: Larrialdia eta (2) Presakoa Gainerakoak ohiko moduan tramitatzekoak dira.

Euroak, milioikotan

AKATSAK	ZK.	ZENBATEKOA	ESLEIP.
ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA			
A1	Ez da egiaztatu espedienteak larrialdiko izapidea behar duenik	1	0,8
A2	Ez da egiaztatu espedienteak premiazko izapidea behar duenik	1	1,0
A3	Balio-judizio irizpide orokorrak	3	28,5
A4	Kaudimen teknikoko irizpideak.....	2	14,6
A5	Ez da lizitazioa EBAOn argitaratu eta eskaintzak aurkezteko epe oso laburra ezarri da	1	1,5
A6	Baliatutako formula matematikoak puntuazioa ematen die lizitazio prezioa berdintzen duten eskaintzei	2	14,6
A7	Ez da behar bezala justifikatu loteetan ez banatzea	5	47,7
A8	Pleguak aldatu dira aldezkarri ofizialetan argitaratu gabe eta eskaintzak aurkezteko epea luzatu gabe	1	20,1
ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA			
B1	Esleipen epeak SPKLTren 161 art. eta SPKL (2017)ren 158 art. ezarritako gehienekoa gainditzen du.	3	8,5
B2	Esleipen-ebazpena jakinarazi da kontratua sinatu ostean eta APAPELren 40. art. epea gaindituta	1	1,6
B3	Administrazioak kontratua atzerapenez formalizatu du	1	1,4
B4	Kontratua ez da kontratatzailearen profileen argitaratu SPKL (2017)ren 154.1 art. arabera.....	4	5,2
B5	Ez da egoki justifikatu balio-judizioko irizpidedun balorazio-txostenetan puntuazioa	3	32,7
EXEKUZIOA			
C1	Segurtasun eta Osasun Plana onartu da pleguetan aurreikusitako epea gaindituta	2	3,6
C2	Ez da jaso laneko programa kontratazio-atalak onartu duenik	4	14,7
C3	Aldaketa egin da SPKLTren 107 art. aurreikusitako egoeretan sartzen ez dela eta gastuaren zati bat prozedura saihestuta.....	1	0,3
AURREKO URTEETAN ESLEITUAK			
D1	Azken ziurtagiria epez kanpo onartu da	3	139,2
D2	Azken ziurtagiria ez du organo eskudunak onartzen	3	10,2
D3	Harrera aktak ez du obren egiazko egoera eta akatsak zuzentzeko epea erakusten (SPKLTren 235. art.).....	2	11,5
D4	Egiazko egikaritzak aurreikusitako amaiera data gainditzen du, epe-luzaketa izapidetu gabe.....	2	10,1
D5	Ez da jaso kontr. aldatutik eratorritako lan programa berria eta organo kontratatzailearen onespena	2	10,7



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.19 DIRULAGUNTZEN ANALISIA

Dirulaguntzen analisisian, huts hauek aurkitu ditugu:

DIRULAGUNTZA ZUZENAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		
	2018	KREDITUA	AKATSA	
Hiri eremua leheneratu eta zaharberritzeko jarduerak				
Bilboko Udal Etxebizitzak Otxarkoaga auzoa	0,9	3,8	A2,3	
Lasarte-Oriako Udala Basaundi Bailara auzoa	0,2	2,2	A2,3	
Durangoko Udala Aramotz auzoa	0,2	1,8	A2,3	
Ikerbasque Fundazioa Bikaintasuna ikertzeko laguntza (BIHAR proiektua)	1,1	-	A4	
Donostia International Physics Center Fundazioa Superkonputazio gunea	1,0	-	A1,4	
Ikastetxe itunduak. Liberatu sindikalen kostua finantzatzea, 17/18	1,0	-	A4	
Merkatarien elkarteak Denden digitalizazioa	0,9	-	A3,4,5,6	
Aranzadi Zientzi Elkartearen Ondare naturala ezagutu eta zaintzea	0,3	0,6	A3	
Merkataritzako Ganbera Ofizialak e-Commerce programa 2018	0,8	-	A1,3,4,5,6	
Innobasque. Gizarte berrikuntza, kolaborazioko proiektu gidariak	0,7	-	A1,3,4	
Biocruces eta Biodonostia. Gailu mediku eta osasun arloko teknologiak balioztatu eta azaltzea	0,7	-	A3,4,6	
Añanako Kuadrilla Micaela Portilla eskola	0,4	-	A3,4	
Elkargi Hornidura teknikoaren funtsa indartzea	0,4	-	A1,7	
GUZTIRA	8,6	8,4		

ZUZENENKO BESTE DIRULAGUNTZA BATZUK		Euroak, milioikotan	
KONTZEPTUA	D FASEA		
	2018		
Itsas salbamendu humanitarioa Aita Mari Zubia - Mayday terraneo 2018 proiektua egikaritzea			0,4
Tecnalia Research – Innovation Fundazioa Euskadiko ICC ekintzen sustapena			0,3
Tecnalia Research – Innovation Fundazioa Produktuen entsegu eta balioztatzeko azpiegitura			0,3
Azti Fundazioa "Knowledge and Innovation Community (kic) on Food" proiektuaren garapena			0,3
Ikerbasque Fundazioa I2Basqueren sare nagusiko ekipoak berritzea			0,2
Vicomtech fundazioa Kultura eta sormen industriaren berrikuntza sustatzea			0,2
Herri Urrats elkartearen erabilera sustatuko duten proiektuak sustatzeko			0,1
Euskaltzaindia. Akademiaren ehun-urteurrena ospatzeko ekintzak			0,1
EUSKALIT. Kultura eta sormen industriaren antolamendu eta enpresa egituraren eredu berritzea			0,1
Argantzun Udal Udalerriaren euskara sustatzea			0,1
UEMA udalerri euskaldunetan hainbat programa garatzeko			0,1
GUZTIRA			2,2

Dirulaguntza horien onuradunek zuzeneko dirulaguntzak jaso zituzten aurreko bi ekitaldietakoren batean, kontzeptu berengatik (A1).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

Euroak, milioikotan

KONTZEPTUA	D FASE	KONPROMISO	
	2018	KREDITUA	AKATSA
EHU Banako ordainsari osagarriak.....	14,9	-	-
Ikerbasque Fundazioa Jarduera finantzatzea.....	12,4	-	-
Berrikuntzako Euskal Agentzia. Innobasque.....	3,0	-	-
Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA Urteko programa 2018.....	1,1	-	-
Arabako Foru Aldundia eta Bilboko Portuko Agintaritzza ARASUR Plataforma.....	0,7	-	-
GUZTIRA	32,1	-	-

DIRULAGUNTZEI BURUZKO ARAUDIAREN ANALISIA

Euroak, milioikotan

KONTZEPTUA	DEIALDIAREN	
	ZENBATEKOA	AKATSA
LEHENDAKARITZA		
1. Irabazi asmorik gabeko erakundeen bizikidetza eta giza eskubide gaietan proiektuak.....	0,9	B1,2
EKONOMIA GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
2. Nazioartekotze sendoa duten ETEei laguntza Sakondu programa.....	0,8	B2
3. Industriako doktoregoak egiteko eta EAEn ikerlariak txertatzeko laguntzak. Bikaintek programa.....	6,6	B2,6,8
4. Kalitate gastronomikoaren sustapena Gastrobikain programa.....	0,5	B2,3
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
5. Seme-alabak euren kargu dituzten familiei laguntza ekonomikoak.....	34,5	-
HEZKUNTZA		
6. Lanbide Prestakuntzako ikasleei enpresetan egonaldia luzatzeko beka.....	1,4	B4,5
7. Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa zentroak. BERC programa.....	42,0	B4,7
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
8. Saltokiak modernatzen laguntzeko programa.....	2,0	B2
9. Turismoa merkaturatzeari eta sustapenari laguntzak CTP programa.....	0,7	-
10. Autonomo, enpresa eta udalerrientzat merkataritzako ekimen programa.....	2,2	B1,2
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
11. Euskadin kulturako ikuslegoa/entzunaldiak sortu, fidelizatu edo gehitzea.....	0,6	B2
12. Euskal kultura-ondareari balioa eman eta hedatzeko laguntzak (2018-2020).....	2,4	B2
LANA ETA JUSTIZIA		
13. Gizarte-ekonomiako enpresetan langileen esku-hartze eraginkorra.....	0,3	B2,6

DEIALDI PUBLIKO BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Euroak, milioikotan

KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO	
	2018	KREDITUA	AKATSA
Industriako doktoregoak egiteko eta EAEn ikerlariak txertatzeko laguntzak. Bikaintek programa.....	0,7	1,9	-
Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa zentroak. BERC programa.....	8,4	33,6	-
Euskal kultura-ondareari balioa eman eta hedatzeko laguntzak (2018-2020).....	0,8	1,6	C1
GUZTIRA	9,9	37,1	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AKATSAK	Euroak, milioikotan	
	KOP.	EMANDAKO ZENBATEKOA
A1. Onuradunek beste dirulaguntza bat jaso dute helburu bererako aurreko ekitaldietan	15	5,1
A2. Diruz lagundutako jarduerarik gehienak deialdi orokorretan jaso ohi dira	3	9,1
A3. Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da behar bezala justifikatu gabe	9	13,5
A4. Dirulaguntza ez da sartzen saileko dirulaguntzen plan estrategikoan	8	6,6
A5. Jardueraren garapen eta kudeaketarako izendatutako langileak zehaztu gabe	2	1,7
A6. Langile-gastuen justifikazioa ez da behar hainbatekoa	3	2,4
A7. Ez da bateragarritasun-muga bete dela egiaztatzeke prozedurarik finkatzen	1	0,4
B1. Arauak ez du agintzen eskaintz. eskatu behar direla diruz lagungarri diren gastuak kontratatzeke ...	2	3,1
B2. Oroitidazkiek ez daukate beren eraginkortasuna ebaluatzeke bidea emango duten adierazleak	9	16,3
B3. Emakida proposatzen duen atalaren argitalpen-data emakida-data baino beranduagokoa da	1	0,5
B4. Ez dira laguntzen emakida-ebazpenak argitara eman	2	43,4
B5. Eskabideak aurkezteke epea hilabetetik beherakoa	1	1,4
B6. Ez da jasotzen KKOri eta HKEEri informazioa emateko obligazioa	2	6,9
B7. Eskabidearen ataletako baten balorazio irizpideak orokorrak dira	1	42,0
B8. Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da behar bezala justifikatu gabe	1	6,6
C1. Balorazio irizpideei emandako puntuazioa ez dago behar bezain arrazoitua	1	2,4

A.20 KONTABILITATE PUBLIKOA

AKTIBO EZ ARRUNTA

Honako hauek dira aktibo ez-arruntaren xehetasunak, 2018ko abenduaren 31n erregistratuak:

	Euroak, milioikotan
Ibilgetu ukiezina	47,6
Administrazioko emakidak	2,1
Aplikazio informatikoak	24,7
Jabetza industrial eta intelektuala.....	1,2
Erabilera-lagapenak	14,7
Ibilgetze immaterialetarako aurrerakinak.....	4,9
Ondasun ibilgetu materialak	2.723,1
Lursailak	677,4
Eraikuntzak.....	1.731,4
Azpiegiturak	138,0
Ondare historikoko ondasunak	4,4
Beste ibilgetu material bat	95,4
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	76,5
Epe luz. finantza inb., taldeko entitate, talde aniztun eta elkartuetan	1.467,5
Epe luz. finantza inbertsioak, ondareko tresnetan	1.396,1
Taldeko erakundeetarako, talde aniztunetarako eta elkartuetarako kredituak	37,6
Bestelako inbertsioak	33,8
Epe luz. finantza inbertsioak	192,3
Salmentarako erabilgarri dauden finantza-aktiboak.....	34,5
Epe luz. kredituak	143,0
Epe luz. eraturako gordailuak	14,8
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.	72,6
Zordunak epe luz.	72,6
GUZTIRA	4.503,1

Hauek izan dira aktibo ez-arrunteko kontuen mugimenduak:

ELEMENTUA	Euroak, milioikotan			
	SALDOA 18.01.01	SARRERAK/ (ZUZKIDURA)	BAJAK	SALDOA 18.12.31
Ibilgetu ukiezina.....	147,2	11,8	(7,1)	151,9
Ibilgetu ukiezinarekin amortizazio metatua	(95,1)	(16,2)	7,0	(104,3)
Ondasun ibilgetu materialak	3.923,2	92,8	(57,2)	3.958,8
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	(1.187,0)	(90,0)	41,3	(1.235,7)
Taldeko erakundeetan epe luz. finantza inbertsioak	1.557,6	110,2	(46,7)	1.621,6
Taldeko ent. epe luzeko finan. inberts. narriadura metatua	(159,5)	(11,7)	13,8	(154,1)
Epe luz. finantza inbertsioak	222,2	25,5	(51,5)	196,5
Beste finantza inbertsio batzuk	14,8	-	-	14,8
Epe luzeko finan. inberts. narriadura metatua	(19,4)	(9,4)	9,8	(19,0)
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.	39,4	51,0	(17,8)	72,6
GUZTIRA	4.443,4	164,0	(108,4)	4.503,1



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE EMAITZA EKONOMIKOAREN ETA AURREKONTU EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Bi emaitzen arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euroak, milioikotan
2018KO EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	353,7
ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK:	
Ken: Aurrekontu gastuak eta ordaintzeke zeuden hondarren deuseztatzeak	1.410,7
Inbertsio erreal propioak (A.6)	95,7
Finantza-aktiboen gehikuntza (A.7)	97,6
18-12-31n epe/l zuzkiduretan sartutako aurrekontu gastuak	0,1
Zor publikoaren eta maileguen gutxitzeak (A.15)	1.214,7
Zor publikoa kokatzeko batzordea	2,3
Bestelako kontzeptuak	0,3
Gehi: Aurrekontu sarrerak eta kobratzeke zeuden hondarren deuseztatzeak	1.384,1
Ibilgetu materialaren eragiketengatik	10,5
Finantza-aktiboen gutxitzea (A.11)	23,5
Gerorapen eta zatikapenengatik e/luz zordunak murriztea	6,8
Etxebizitza, garaje eta lokalen salmentagatik epe/l kredituak gutxitzea	1,6
Eskubideak baliogabetzea	(6,1)
Kapitalezko dirulaguntzak Euskal Y-a (A.10)	73,6
Jasotako beste kapitalezko dirulaguntza batzuk	0,5
Obligazioen eta maileguen jaulkipenak (A.15)	1.269,0
Beste zor batzuk	4,7
AURREKONTU EMAITZAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK:	
Gehi: Sartu gabeko gastuak	158,4
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak	10,6
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1,4
Ibilgetuaren amortizazioa (ikus V. atala)	103,0
Ibilgetu ez finantzariotik datozen galerak	3,3
Arruntak ez diren beste partida batzuk	3,8
Maileguen eta zorraren interesak, 2018an sortuak eta ordaintzeke daudenak (A.15)	11,0
Sortutako beste finantza gastu batzuk	4,9
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	20,4
Ken: Sartu gabeko diru sarrerak	115,9
Ibilgetu ez finantzariotik dirulaguntzen egozpena	5,1
Beste erakunde batzuentzat eraiki edo erositako aktiboak	82,2
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	0,1
Hornidura soberakinak (ikus V. atala)	10,5
Ibilgetua besterentzeagatik emaitzak	12,3
Arruntak ez diren beste partida batzuk	3,7
Sarrera finantzarioak	2,0
2018KO EKITALDIKO AURREKONTU SUPERABITA	369,6



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.21 LURRALDEKA BEREIZITAKO GASTUAK ETA SARRERAK

Administrazioak bere aurrekontuak apailatzen ditu, eta haien egikaritzea kontabilizatzen du gastuak eta sarrerak lurraldeka sailkatuta, baina ez ditu onartzen, ez eta ekitaldia likidatzeko bere kontuan haien egikaritzeari buruzko informaziorik aurkezten ere.

Jarraian aztertzen da 2018ko ekitaldiko gastuen eta sarreraren zertarakoa, eta 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldiekin konparatzen da.

Aurrekontuen banaketa

2015, 2016, 2017 eta 2018rako onartutako aurrekontuaren banaketa, bai eta lurralde bakoitzak EAERI zerga itunduen kontzeptuan duen koefiziente horizontala ere, 2018ko ekitaldian, honako hau da:

AURREKONTUKO GASTUEN ETA SARREREN BANAKETA, LURRALDEKA

	KOEFIZIENTE HORIZONTALA	GASTUEN %				SARREREN %			
		2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018
Araba	% 16,44	22,7	25,3	22,9	22,7	13,7	13,7	13,6	13,7
Gipuzkoa	% 33,19	24,6	23,1	24,4	22,7	27,5	27,8	27,4	27,8
Bizkaia	% 50,37	39,4	36,6	39,5	40,1	42,0	42,7	42,1	42,2
Lurrald. bereizi gabe	-	13,3	15,0	13,2	14,5	16,8	15,8	16,9	16,3

Gastuak

Hauek dira gastuen xehetasunak eta aurreko hirurtekoarekiko konparazioa:

GASTUAK, LURRALDEKA BEREIZITA

Euroak, milioikotan

	2018			OBLIGAZIO AITORTUAK			BATEZ-B. 2015-2018	%
	AZKEN AURREK.	OBLIGAZ. AITORT.	% GASTU GUZTIRA	2015	2016	2017		
	Araba	2.680,9	2.572,8	% 22,7	2.410,6	2.518,3		
Gipuzkoa	2.476,7	2.564,3	% 22,7	2.441,9	2.522,9	2.579,5	2.527,1	% 23,7
Bizkaia	4.810,8	4.538,0	% 40,1	4.191,0	4.325,0	4.471,9	4.381,5	% 41,1
Lurrald. bereizi gabe	1.823,0	1.642,4	% 14,5	1.118,0	998,5	1.218,3	1.244,3	% 11,6
Guztira	11.791,4	11.317,5	% 100,0	10.161,5	10.364,7	10.823,7	10.666,8	% 100,0



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hauek dira gastuaren xehetasunak, kapituluak aintzat hartuta:

GASTUAK, KAPITULUEN ARABERA	Euroak, milioikotan			
	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	LURR. GABE
Langileria-gastuak	463,4	620,9	954,9	4,6
Funtzionamendu-gastuak	733,0	992,4	1.748,5	50,6
Gastu finantzarioak	-	-	-	180,1
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	1.161,4	645,7	1.433,3	143,2
Inbertsio errealak	20,9	111,6	44,2	1,9
Kapitalezko transferentziak eta dirulaguntz.	152,7	191,8	303,6	46,2
Finantza-aktiboen gehikuntza	41,4	1,9	53,5	0,8
Finantza-pasiboen gutxitzea	-	-	-	1.215,0
GUZTIRA	2.572,8	2.564,3	4.538,0	1.642,4

Gastuak kontabilitatean egozteko irizpideak

Aurreko datuak egoki irakurtzeko, aintzat hartu behar dira gastua kontabilitatean lurraldearen arabera sailkatzeko ondorengo irizpide hauek, Eusko Jaurlaritzak erabiliak:

KAPITULUA	GASTUA EGOZTEKO IRIZPIDEA
Langileria-gastuak	Langilea atxikita duen zentroaren helbidea
Funtzionamendu-gastuak	Gastua egiten den zentroaren kokalekua
Gastu finantzarioak	Ez da lurraldearen arabera sailkatzen zor publikoko gastua
Eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak	Oro har, onuradunaren helbidea Ez da lurraldearen arabera sailkatzen, baldin erakundeak ez badu EAEn operatzen
Inbertsio errealak	Inbertsioa egiten den tokian, ez dira lurraldekotuko inbertsio immaterialak
Kapitalezko transf. eta dirulaguntzak, finantza-aktiboen bariazioa	Inbertsioa egiten den tokian
Finantza-pasiboen bariazioa	Ez da lurraldearen arabera sailkatzen zor publikoa

Inbertsioa, lurraldeka

2015, 2016, 2017 eta 2018an egindako inbertsioak (6. eta 7. kapituluak) ehunekotan duen banaketa honako hau da:

	INBERTSIOA, EHUNEKOTAN			
	2015	2016	2017	2018
Araba	14,5	13,7	18,8	19,9
Gipuzkoa	39,8	41,5	38,0	34,8
Bizkaia	40,7	39,6	36,4	39,8
Lurraldeka bereizi gabe	5,0	5,2	6,8	5,5



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Jarraian, inbertsio nagusiak azaltzen dira, lurralde historikoen arabera:

Araba: Inbertsio nagusiak osasungintza (Osakidetza) finantzatu eta kontratatzeke egin dira, lurraldean egindako inbertsio osoaren % 41,9 osatzen baitute. Hurrena, etxebizitza-programan egindako inbertsioak, % 14,4 egin dutenak, eta trenbideko garraioaren (tranbia eta bus elektriko adimenduna) azpiegitura eta kudeaketarako dirulaguntzak, % 8,0.

Gipuzkoa: ETSBn egindako inbertsioa lurralde guztian egindako inbertsio guztiaren % 24,3 da; garapen teknologikoari laguntza emateko egindako inbertsioak % 23 dira eta trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketako inbertsioak, % 15,4.

Bizkaia: Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketara bideratutako inbertsioak lurralde guztian egindako inbertsio guztiaren % 26 dira (gehienbat ETSri eginiko transferentziak eta Bilboko Hiri Trenbidearen obrak finantzatzea); garapen teknologikoari laguntza ematekoak % 20,9 dira eta etxebizitzarakoak, % 10,8.

Honako taulan daude jasota inbertsio handieneko programak:

EGITARAUA	Euroak, milioikotan									
	ARABA	%	BIZKAIA	%	GIPUZKOA	%	LURR. GABE	%	GUZTIRA	%
Teknologia.....	13,7	% 8,8	69,8	% 44,6	72,8	% 46,6	-	-	156,3	% 100
Trenb. garraioa. azpieg. eta kud.	13,9	% 9,2	46,7	% 30,8	90,8	% 60,0	-	-	151,4	% 100
Etxebizitza	25,0	% 25,2	33,5	% 33,8	37,5	% 37,9	3,1	% 3,1	99,1	% 100
Osasun finantz. eta kontratazioa.....	72,7	% 95,3	0,9	% 1,2	2,7	% 3,5	-	-	76,3	% 100
EHTSB.....	-	-	73,7	% 100,0	-	-	-	-	73,7	% 100
Garapenerako lankidetzak	-	-	-	-	-	-	36,3	% 100,0	36,3	% 100
Bigarren hezkuntza eta LH	5,1	% 17,5	14,0	% 47,9	10,1	% 34,6	-	-	29,2	% 100
Plangintza eta admin. hidraulikoa	2,5	% 8,8	7,3	% 25,8	15,0	% 53,0	3,5	% 12,4	28,3	% 100
Haur eta lehen hezkuntza	4,1	% 15,2	8,3	% 30,9	14,5	% 53,9	-	-	26,9	% 100
Nekaz. eta landa eta kosta garap.	8,6	% 36,9	6,8	% 29,2	7,9	% 33,9	-	-	23,3	% 100
Ikerketa	-	-	6,6	% 31,9	14,1	% 68,1	-	-	20,7	% 100
Indust. garapena eta ekintz. lagun.	0,5	% 2,7	2,5	% 13,3	15,8	% 84,0	-	-	18,8	% 100
Unibertsitateko irakaskuntza	-	-	2,8	% 17,9	12,8	% 82,1	-	-	15,6	% 100
Zerbitzuko Ertzaintza	-	-	0,1	% 1,1	8,1	% 88,0	1,0	% 10,9	9,2	% 100
Arrantzua	-	-	4,9	% 57,0	3,7	% 43,0	-	-	8,6	% 100
Berrikuntza funtsa.....	0,1	% 1,2	1,7	% 20,0	6,3	% 74,1	0,4	% 4,7	8,5	% 100

Lurraldeka bereizi gabeko etxebizitza-gastuak norbanakoei interes-puntuen dirulaguntza bidez emandako 3,1 milioi euroren laguntzei dagozkie.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketa” programan honako hau erregistratu da: Bizkaiko Garraio Partzuergoari emandako kapitaleko dirulaguntza, Bilboko Hiri Trenbidea finantzatzeko, 39 milioi euro; ETSrako dirulaguntzak, guztira 64,4 milioi euro (lurrealdearen arabera sailkatuak: 110.000 milioi Araban; 33,6 milioi Gipuzkoan; eta 30,7 milioi euro Bizkaian); eta Eusko Trenbideak sozietate anonimoarentzako dirulaguntzak, guztira 36,8 milioi euro, hiru lurraldeetan inbertsioak finantzatzeko (2,8 milioi Arabarentzat, 13 milioi Gipuzkoarentzat eta 21 milioi Bizkaiarentzat).

«Garapenerako lankidetzeta» programan kontabilizatutako inbertsio osoa, 36,3 milioi euro, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari emandako kapitalezko dirulaguntzari dagokio.

Uraren Euskal Agentziarentzako kapital eragiketetarako dirulaguntza «Plangintza eta administrazio hidraulikoa» programan erregistratu da, 28,3 milioi euroekin.

Sarrerak

Hona hemen sarreraren xehakapena:

SARRERAK, LURRALDEKA BEREIZITA							Euroak, milioikotan	
	2018			ESKUBIDE AITORTUAK			BATEZ-B. 2015-2018	%
	AZKEN AURREK.	ESKUB. AITORT.	% OBLIG. GUZTIRA	2015	2016	2017		
Araba	1.588,3	1.673,7	% 14,3	1.417,4	1.476,3	1.643,6	1.552,8	% 14,3
Gipuzkoa	3.224,8	3.393,4	% 29,0	2.858,6	2.949,5	3.303,3	3.126,2	% 28,8
Bizkaia	4.880,9	5.135,8	% 44,0	4.420,0	4.585,9	5.085,7	4.806,9	% 44,2
Lurrald. bereiz gabe	2.097,4	1.488,1	% 12,7	1.406,4	1.394,6	1.231,9	1.380,2	% 12,7
Guztira	11.791,4	11.691,0	% 100,0	10.102,4	10.406,3	11.264,5	10.866,1	% 100,0

Lurrealdearen arabera sailkatu gabeko sarrerak, funtsean, zor publikoari dagozkio.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2018EKO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan xedatutakoa betez, agiri honetan aurkezten dira organo kudeatzaile bakoitzak egin dituen alegazioak eta justifikazioak, eta Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak zentralizatu dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazioaren emaitzei dagokienez (2018ko ekitaldikoak).

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 LARRIALDI-PROZEDURA

“Donostiako portuko bokaleko hegoaldeko muturra egonkortzea” espedientea (19. espedientea), 819.612 euroan esleitua, SPKLren (2017) 120. artikuluan aurreikusitako salbuespeneko larrialdi-prozeduraren bidez izapidetu da, eta ez da behar bezala justifikatu prozedura hori erabiltzea. Gainera, exekuzioa hasteko gehieneko epea lau hiletan baino gehiagotan gainditu da, izapide mota horretan aurreikusitakoa kontuan hartuta”.

ALEGAZIOA

Espediente hori larrialdi-prozeduraren bidez izapidetu dela egiaztatzeko arrazoiak behar bezala justifikatu eta arrazoitu dira Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak 2018ko martxoaren 27an sinatutako eskabidean. Idazki hori, era berean, Portuetako Lurralde Zerbitzuko Herri Lanetako arduradunak 2018ko martxoaren 27an emandako txosten teknikoan oinarritzen da.

Txosten teknikoan aipatzen den bezala, portuko segurtasunerako eta erabilgarritasunerako arrisku ezkutua zatekeen gorabehera bat izan zen portura sartzeko bokalean. Izan ere, hegoaldeko kaiko muturraren egitura kolapsatzeko benetako arriskua zegoen, eta horrek arriskuan jartzen zituen portuaren erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna, eta erabiltzaileen segurtasuna. Kasuistika horrek berez justifikatzen du aukeratutako prozedura larrialdikoa izatea, berehala esku hartu behar baitzen egoera larriagotzea saihesteko.

Kontratua kontratatzailearen profilean ez argitaratzeari dagokionez, esan behar da 2019ko bigarren hiru hilekora arte ez zela gai hori landu, hau da, EAeko kontratazio publikoko plataformak ez zuen uzten kontratu-dokumentua zegokion atalean sartzeko. Beraz, aukera hori gaitu arte, ez zen dokumentua argitaratu. Kontratua formalizatzeari buruzko datuak bakarrik argitaratu ziren.

II.1.2 KONTRATUA SPKLREN TESTU BATEGINETIK KANPO UTZI DA

“Hiru Lurralde Historikoetan familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala ematea” (39. espedientea), 1,5 milioi eurotan esleitua, SPKLBTtik kanpo utzitako kontratu gisa lizitatu da, publizitate eta lehia askearen printzipioak behar bezala bermatu gabe, ez baita EBAOn argitaratu eta 13 eguneko epea ezarri baita eskaintzak aurkezteko, 52 egunekoa izan behar zuen arren”.

ALEGAZIOA

Kontratua SPKLBTtik kanpo utzitako kontratu gisa lizitatu zen, 4.1.k artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz; beraz, ez ziren aplikatu behar arau horretako xedapenak, ez EBAOn argitaratzeari buruzkoak, ez eskaintzak aurkezteko epeari buruzkoak.

Ondorio hori bermatzen dute Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren aholkularitza juridikoaren txostenak, eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren jakinarazpen batek. Dokumentu horiek oinarri hartuta, ulertzen dugu ez zela urratu publikotasunaren printzipioa.

Eta, gure ustez, lehia askearen printzipioa ere ez zen urratu, eta lizitatzailen lehia askea bermatu zen, ez bakarrik lizitazioa kontratugilearen profilean argitaratzea erabaki zelako, nahiz eta nahitaezkoa ez izan eta haren publikotasuna indartu zelako kontratua interesatzen zaien erakundeei jakinarazita, baizik eta, gainera, hala adierazten duelako Lehiaren Euskal Agintaritzak lizitazioaren lehiaketari buruzko eranskinean, erakunde horrek bidalitako mezu elektronikoan honako hau adierazten baita: “... egindako azterketaren emaitza ikusita eta eskumen-arloan eraginik ez zuenez, LEA/AVCk ez zuen egokitzat jo inolako txostenik egitea”.

II.1.3 ADMINISTRAZIOAREN ARRISKUAK ASEGUATZEKO KONTRATUA

“EAEko Administrazioaren arriskuak aseguratze” kontratuaren IV. lotearen aldaketan (281.248 euroko bidaia-laguntzako zerbitzua kontratatzea izan zen helburua), prestazio berriak kontratuaren % 10eko mugaraino iristea onartu zen, kontratuaren funtsezko baldintzak aldatzea saihesteko, aldaketaren kostua 387.309 eurokoa baitzen. Aldaketarekin estalduratik kanpo geratzen den prestazioa, onartzeke eta ordaintzeke dagoena, prozedura erabat alde batera utzita kontratatu zen. Gainera, aldaketan jasotako prestazioak ez dira sartzen SPKLBTren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan; beraz, beste lizitazio bat egin beharko litzateke”.

ALEGAZIOA

1.- C3 gabezia

Kontratu horretako baldintza teknikoan agiritan ez zen aipatzen azken urteotan lote horren esleipena jaso zutenek euren borondatez estalduran egindako hobekuntzak, zeintzuk ia ezinbesteko bihurtu baitziren kontratu hori kudeatzeko, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren titulartasuneko ibilgailu flota osoarentzako bidaia-asistentziako zerbitzuaren estaldura.

Estaldura hori guztiz beharrezkoa zen ibilgailu parkearen antzintasuna ikusita eta Administrazio langileak babesik gabe ez uzteko, baldin eta beren eginkizunetan Jaurlaritzaren titulartasuneko ibilgailu bat erabiltzen ari zirela errepidean ustekaberen bat bazuten.

Hala ere, arrisku hori estaltzeko beharra, lehen esan dugun bezala, ez zen pleguetan aurreikusi, lizitatuzaileek, urtez urte gertatu zen bezala, hobekuntza hori beren eskaintzetan sartuko zutelakoan.

Hori horrela izan ezenez, 2018ko apirilaren 15ean, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak kontratua aldatzeko eskatu zuen, bat etorrita une hartan indarrean zegoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 105.1 eta 107. artikuluetan xedatuarekin.

Estaldura gehigarria 2018ko maiatzaren 5etik 2019ko ekainaren 30era luzatuko zen.

Hain zuzen ere, pleguetan aurreikusi gabeko aldaketa bat zen, eta honela justifikatu zen: kontratuaren bidez bete nahi ziren beharrak asetzeko, kontratatutako prestazioa ez zen egokia proiektuaren idazketan edo zehaztapen teknikoetan egindako akats edo hutsegiteengatik. Aldaketak ez zituen nabarmen aldatzen lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak, eta aldaketaren xedea betetzeko ezinbestekoak zirenak bakarrik egin ziren.

Aldaketak ez zuenez betetzen 2020ko urtarrilaren 16an amaitzen zen kontratuaren iraunaldi osoa, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak 100.000 euroko kontratu ireki sinplifikatua lizitzatzeko izapideak hasi zituen, geratzen zen aldian, hau da, sei hilabetean, kontingentzia hori betetzeko.

Azalpenarekin jarraitu aurretik, aseguruaren munduaren berezitasunak eta kontratuaren baldintzak aipatu behar ditugu. Hala, prezioa hasierako prima batean finkatzen bada ere, agirian jasotzen den bezala, azken primaren zenbatekoa aseguraturako ibilgailuetan izandako alta eta baja kopuruaren arabera izango da.

Hala, aseguru-etxeak, aseguraturako flota gutxituenez, eta, beraz, ordaindu beharreko prima hasieran esleitutakoa baino txikiagoa izango zela ikusita -primak kontratuaren hasierako aldian ordaintzen dira-, errepide-asistentziari dagokion arriskua estalduran sartzeko aukera eskaini zitzaion administrazio honi, polizaren indarraldia amaitu arte, primak izan zitezkeen erregularizazioekin konpentsatuta.

Egoera horren aurrean, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako aseguru- eta kontratazio-zerbitzuek lizitazio berriarekin jarraitzearen edo konpainiaren proposamena onartzearen artean aukeratu behar izan zuten, honako hauek kontuan hartuta:

- Bidaia-asistentziaren zerbitzua ibilgailuaren gainerako aseguramenduarekin lotura estua duen zerbitzua da. Kontingentzia horren prestazioa berezia izan badaiteke ere, zaila da modu independentean exekutatzea eta kudeatzea; beraz, eraginkorra guztia aseguru-etxe bakar batek kudeatzea da.
- IV. lotuaren lizitazioan, gaur egun esleipendun den enpresa baino ez zen aurkeztu, eta, beraz, zaila izan zen, ezinezkoa ez esatearren, lehia handiagoa egotea sei hilabete inguruko estaldura mugatua eskaintzeko, poliza nagusiaren modu osagarrian.

- Autonomia-erkidegoko Administrazioari ez zitzaion kalterik eragiten, zenbateko hartzekodun eta zordunen konpentsazioa egiten baitzen administrazioaren eta aseguru-etxearen artean.
- Eraginkortasun eta ekonomia administratibo hobearen mesedetan, konpainiaren proposamena onartzea komeni zen, nahiz eta posible izan lizitatzen zen kontratua hutsik geratzea, eta, beraz, hasierako aldaketa eragin zuen premia estaldurarik gabe geratzea. Horrekin batera, berriro nabarmendu behar ditugu aseguru-munduaren berezitasunak kontratazio publikoen barruan, egindako jarduketara ohikoa baita sektore horretan.

Beraz, inguruabar guztiak balioetsi ondoren, ondorioztatu zen egokiagoa zela auzia kontratua betetzeko kontingentziatzat ebatzea, eta ez kontratuaren aldaketa berritatzat; izan ere, aurreko aldaketa batean gehitutako estalduraren iraunaldia baino ez zen aldatzen, eta ez zion inolako kalterik eragingo Autonomia Erkidegoko Ogasunari.

2.- A3 gabezia

385/2017 Ebazpena, 2017ko apirilaren 28koa, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiarena, Balear Uharterei buruzkoa:

«(...)agrietan beharrezkoa izango den zehaztasun-maila; alegia, lizitatzailleek aldezturik jakin behar dituzte kontratazio-organismoak eskaintza ekonomikorik onuragarriena zehazteko erabiliko dituen irizpideak, euren eskaintzak egin ahal izateko, eta sektore publikoko kontratazioaren printzipioen eskakizunak betetzen dituenean haztatu edo interpretatu ahal izango da, gai horretako kontratazio-zuzentarauei buruzko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziari jarraikiz.

Era berean, gogorarazi genuen aplikatu beharreko balorazio-irizpideak eta horien haztapan modua Pleguetan ezartzeko lege-betekizunaren helburua dela, hain zuzen ere, kontratista hautatzeko orduan Administrazioaren jokabide objektiboa bermatuta egotea, baita lizitatzailen artean tratu-berdintasuna eta prozeduraren gardentasuna ere. Horregatik, balorazio-irizpideak eta haien haztapan-koefizienteak argi ezarri behar dira Pleguetan, lizitatzailleek ezagutu ditzaten, desberdintasunik eta gardentasun-faltarik sortu gabe eskaintzak aurkezteko eta haiek balioztatzeke orduan.

(...)

Ildo beretik, 208/2017 Ebazpenean, 203/2016 Ebazpena ere aipatzen genuen. Azken horretan, nolabaiteko diskrezionalitatea aitortzen da balorazio-irizpide subjektiboen edo balio-judizio baten mende dauden irizpideen integrazioan, eta hau adierazten da: «Auzitegiak aukera izan du balio-judizio baten mende dauden esleipen-irizpideen beharrezko den zehaztapanari buruzko iritzia emateko, besteak beste, abenduaren 18ko 1160/2015 Ebazpenean: “a) Balorazio-irizpideek ondo definituta egon behar dute pleguan, ez bakarrik irizpidearen definizioari dagokionez, baita irizpide horren balorazioan kontuan hartuko diren alderdi zehatzei dagokienez ere. Zehaztapan hori bereziki beharrezkoa da balio-judizioko irizpideen kasuan; izan ere, hala ez balitz, gardentasunaren eta lehia askearen printzipioa urratzeaz gainera, eragotzi egingo litzateke administrazio- eta justizia-organo eskudunek ondoren berrikusi ahal izatea

(102/2013 eta 263/2011 ebazpenak). b) Xehetasun-maila hori lortzeko moduari dagokionez, ordea, ez da beharrezkoa puntu-banden bidez esleitzea, nahikoa baita irizpidearen deskribapena behar bezain zehatza izatea, eskaintza bakoitza balioztatzeko torduan jarraituko diren jarraibideak ezarriz. Kontuan hartu behar da, balio-judizioei lotutako irizpideen kasuan, deskribapena beti eta nahitaez izango dela subjektiboa, bestela formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideen aurrean egongo baikinategi (923/2014 ebazpena). c) Pleguan ezarritako irizpideak ezin dira gerora aldatu, pleguetan jasota daudenez bestelako irizpideak edo alderdiak sartuz. Baina horrek ez du esan nahi, balorazioa egitean, pleguetan izaera orokorrarekin aipatzen diren alderdiak kasu bakoitzean zehazten dituzten balorazioak jaso ezin direnik (301/2012 ebazpena). ()” Balio-judizioen mende dauden irizpideen funtsa da, hain zuzen ere, analisia egiten duenak jokabide subjektiboa duela, eta jokabide hori ezin da arbitrarioa izan, baina ezin da matematikoa ere izan. Jurisprudenzia (adibidez, Auzitegi Gorenaren epaia, 2012ko ekainaren 27koa) eta geure doktrinak (408/2015 eta 257/2015 Ebazpenak eta beste asko) Administrazio organoen diskrezionalitate tekniko aitorzen dute, lizitatzailen eskaintzen esleipen-irizpideen elementu subjektiboak integratzeko tresna tekniko gisa; hori, botere-desbiderapenagatik, arbitrarioritasunagatik, justifikaziorik ezagatik edo alegatzen duen alderdiak behar bezala egiaztatutako akatsagatik bakarrik indargabetu daiteke, edo prozedura urratzeagatik. Balio-judizio baten mendeko esleipen-irizpideak onartzeak berekin dakar zenbait kontzeptu ezagutzea, kontratazio-organoen horiek balioespen edo balorazio subjektibo baten bidez integratu ditzakeenean; horregatik, horiek definitzeko erabilitako kontzeptuek balorazio-tarte bat onartzen dute, nahiz eta inguruabar horrek ezin dituen gainditu diskrezionalitate teknikoari buruz ezarritako mugak».

Hala, pleguetan irizpide subjektiboak zehazteak esan nahi du administrazioak modu objektiboan aukeratzea bermatuta egongo dela, baita tratu-berdintasuna lizitatzailen artean eta prozeduraren gardentasuna ere. Ondorioz, ez da desparekotasunik egongo lizitatzaileri emandako tratuan, eta horien eskaintzen balorazioan. Irizpideak nahiko argiak dira aseguratzaile ororentzat, aurkeztu ziren enpresek pleguak eta balorazioa aurkaratzeko adina bai behintzat. Beraz, guztiek baldintza berberetan parte hartu ahal izan zuten, eta ondoriozta daiteke zehaztapen hori nahikoa izan zela.

3.- B5 gabezia

Adierazi genuen beste iritzi batekoak ginela: esleipena oinarritu zen txostenean justifikatuta zegoen puntuazio subjektiboa. Hala, ondorengo lehiaketakoa izan arren, eta ez txostenaren xede den lehiaketakoa, lizitatzailen batek balorazio txostena ere errekurritu zuen Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoen (KEAO) aurrean. Organo horrek Administrazioari eman zion arrazoia, honako honen bidez: 026/2020 Ebazpena, otsailaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoen titularrak emana, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arriskuak aseguratzeko» kontratuaren esleipenaren aurka jarritako kontratazio-arloko

errekurtsio berezia dela-eta (III. lotea), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izapidetua, honako hau dioena:

«“Hobekuntzak” balio-judizioko esleipen-irizpidearen aplikazioaren aurkako alegazioei dagokienez, nabarmentzekoa da botere esleitzzaileak marjina jakin bat duela irizpide diskrezionalak aplikatzeko. Beraz, organo horrek ezin du haren inguruan emandako irizpen teknikoei buruzko guztia berrikusi, eta, aldiz, egiaztatu egin behar da Administrazioaren jardura diskrezional ez-teknikoari ezarritako muga juridiko orokorrak errespetatu egiten direla. Muga horiek organoaren eskumenari, prozedurari, egitate erabakigarriari, lortu nahi den helbururako egokitasunari eta zuzenbideko printzipio orokorreari buruzkoak dira. Muga horiek direla eta, ezin da “erabakiaren funtsa” delakoa fiskalizatu (judizio zorrotza edo irizpen teknikoak), bai ordea “erabakiaren inguruabarrak”; izan ere, hor sartzen dira, alde batetik, hori posible egiteko irizpen tekniko zorrotz horren prestatze-jarduerak eta jardura instrumentalak, eta, bestetik, jardura horiei ere eska dakizkiekeen jarraibide juridikoak, hau da, berdintasun-tratuaren printzipioa eta arbitrariotasun-debekua errespetatzea (ikus, adibidez, Auzitegi Gorenaren epaia, 2010eko uztailaren 19koa, 950/2008 errekurtsioa, ECLI:ES:TS:2010:4043 eta KEAOren 117/2019 Ebazpena). SPKLak esleitzen dizkion funtzioak betetzeko esleipenak izan behar duen gutxienezko edukari dagokienez, hala nola, interesdunei behar bezala oinarritutako errekurtsioa jartzeko aukera ematea (SPKLren 151.2 artikulua) eta organo honi erraztasunak ematea botere esleitzzailea babesten duen diskrezionalitate teknikoaren erabilera kontrolatzeko, behin eta berriz eman ditu adierazpenak KEAOak (ikus, adibidez, 117/2019 Ebazpena). Laburbilduz, motibazioan irizpen teknikoan erabiliko diren materiala edo informazio-iturriak adierazi behar dira, irizpen tekniko hori emateko erabiliko diren balorazio-irizpideak adierazi behar ditu eta azaldu behar du irizpide horiek aplikatzeak zergatik dakarren emaitza banakotu bat, lizitatzaille bati lehentasuna ematen zaiona. Baldintza horiek bete ondoren, ez dago arrazoiak eskema formal jakin batera egokitu beharrik.

Organo honek egin dezakeen kontrolaren irismena horrela mugatu ondoren, eta printzipio horiek aztertutako kasuarekin egiaztatu ondoren, uste da botere esleitzzaileak zuzen erabili duela diskrezionalitate teknikoak, aurkaratutako ekintza behar bezala justifikatzen den txosten tekniko baten bidez».

Esku artean dugun kontratuan, gauza bera gertatzen da; izan ere, 2018an, berdin-berdin balioztatu zuen teknikari berberak.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARTARAZPENAK

III.2 LANGILE-GASTUAK

Zuzenagotzat jotzen da apartatu horretako azken esaldia aldatzea:

“Nabarmentzekoa da otsailaren 27ko 29/2018 Dekretuaren bidez onartu zirela EAEko Justizia Administrazioako lanpostuen zerrendak, Donostiako Bulego Judizialari (310 plaza) eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari (10 plaza) zegozkienak”.

ALEGAZIOA

Honela idatzita uzteko:

“Talde horretarako 2018an zehar onartutako lanpostuen zerrendetako aldaketen artean, aipagarria da Donostiako Bulego Judizialeko zenbait plaza berrantolatzeari buruzko (310 plaza) eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari buruzko (10 plaza) otsailaren 27ko 29/2018 Dekretuaren bidez egindakoa”.

III.3 DIRULAGUNTZAK

ZUZENeko DIRULAGUNTZAK

3.3.1

Elkargi - Probisio teknikoko funtsa

A1 gabezia

Hala ere, aurrekontuetan 552.000 euroko zuzkidura izenduna dago, honako hau dioena: «Dirulaguntza, Hornidura Teknikoko Funtsa, Sozietateak, Elkarrekiko Berme Baltzuak. Handitu daiteke». 001. kontu-saila, 751.02 azpikontzeptua, 6311 programa, 06. saila (Ogasuna eta Ekonomia); zenbateko hori gutxi gorabeherakoa da, izan ere, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa (Elkargik 2017an formalizatutako abalen zenbatekoaren % 1) 2017ko ekitaldia itxi ondoren ezagutzen da. Horrenbestez, beharrezkoa da zuzeneko dirulaguntza bat izapidetzea aurrekontu-sail horren kargura, jada adierazten zuena handitu zitekeela.

A7 gabezia

Kontuan hartu behar da dirulaguntza horren emakida egituratzen dela ELKARGI EBSrekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatuta (aldean konpromisoak jasota), helburu jakin eta espezifiko baterako (probisio teknikoaren funtsa sendotzea). Hala, erakunde horrek EAEko ETEei eta autonomoei abalaz ematea sustatuko da.

UEMA, udalerrri euskaldunetan zenbait programa garatzeko

A1 gabezia

2017an UEMari diruz lagundutako proiektuetatik (Udalerrri euskaldunak eta arnaguneak Jardunaldia, UEMA + Tolosaldea udalerrietan kaleko erabileraren neurketak, Tolosaldean herritarrak aktibatzearen esperientzia pilotua, «Salto» (udalerrri euskaldunetako gazteen topaketak), eta «Bermeo eta Ondarroa, hizkuntzaren garapenean eragina duten faktoreak» azterlana), batek bakarrik («Salto») izan du jarraipena 2018an. Hala, 2018an finantzatutako gainerako proiektuak erabat berritzaile eta estrategikoak izan dira arnaguneetarako.

3.3.2

Auzoak birgaitzeko dirulaguntzak

A2 gabezia

Aipatzen diren dirulaguntzak honako hauei dagozkie: Bilboko Otxarkoaga auzoa, Durangoko «Aramotz» deritzon multzoa eta Lasarteko «Basaundi – Bailara» gisa identifikatutako multzoa.

Hiru multzo dira, hiri-zaugarritasunaren inbentarioan «oso zaugarritasun handiko» edo «zaugarritasun handiko» egoeran identifikatutako errolda-sekzioak biltzen dituztenak. Kasu guztietan, tokiko administrazioekin adostutako esku-hartzeak dira, eta haien helburua esku-hartze proiektuak bultzatzea da, esparru horiek egoera zaugarritara daramatzaten baldintzei buelta emateko.

Hasiera batean jarduera horiek deialdi arrunten bidez bete daitezkeela dirudien arren, egia esan, eremu horietako biztanleek ezin dituzte laguntza-programa horiek eskuratu zenbait arrazoiengatik, eta ekimen hauen bidez egoera konpondu nahi da: lehenik eta behin, oso zaila da kudeaketa- eta erabaki-prozesu konplexu bat garatzea -esaterako, auzoaren hiri-birgaitze integralekoa, prestakuntza-maila apaleko eta adin handiko biztanle kopuru handi bat dagoenean-; bigarrenik, diruz laguntzen ez den zatia finantzatzeko zailtasunak daude, eremu horietan biztanleen batez besteko errenta EAEko batezbestekoaren % 50 ingurukoa baita, eta horrek eragotzi egiten baitie finantza-merkatuan finantzaketa egokia jasotzea.

Eremu oso zaharkituak dira, efizientzia energetiko oso baxuko eraikinak dituzte, eta, kasu askotan, pobrezia energetikoko arriskuan daude; irisgarritasuna bermatzeko arazo larriak dituzten eraikinak dituzte, eta horrek mugikortasun-arazoak dituzten adin handieneko biztanleak etxean ixtea dakar; baliabide ekonomiko oso txikiak dituen biztanleria da, laguntza arruntak eskatzeko prozesu konplexuari aurre egiteko gaitasunik eta ezagutzarik ez duena; errenta-maila dela eta, finantza-erakundeek ez dizkiete maileguak ematen diruz laguntzen ez den zatia finantzatu ahal izateko; eta, mailegurik lortzen badute ere, interes-tasen eta itzultze-epeen ondorioz, berezko baliabideekin ordaindu ezin dituzten kuotak izaten dituzte.

Hori dela eta, proiektu horiek esperientzia pilotu gisa sustatu dira, EAEn zaugarritasun «oso handiko» edo «handiko» gisa identifikatuta dauden eremuetan (% 30) esku hartzeko metodologia eta esku-hartze bat garatze aldera, horietan bizi diren biztanleek bizi-kalitatea hobetzeko aukera izan dezaten, berariaz ekinez desberdintasun sozialak maila onargarrietatik harago ez handitzeko.

Horretarako, jardueretako bi Europako proiektu batean integratu dira (HIROSS4all, Home Integrated Renovation One-Stop-Shops in vulnerable Neighbourhoods), eredia lehentasunezko gainerako esku-hartze esparruetara eta EAE osora zabaltzeko asmoarekin.

Horrenbestez, ohiko deialdietan jasotzen diren esku-hartzeetatik oso bestelakoak dira, eta administrazio publikoen (Jaurlaritzaren eta udalen) esku-hartze berezia behar dute, Etxebizitza Legean jasotako moduan.

Bilboko Otxarkoaga auzoa zaharberitzeko dirulaguntzetan ezarri den aurrerakin-erregimenari dagokionez, gerora aldatu egin zen «Aramotz» (Durango) eta «Basaundi – Bailara» (Lasarte) eremuetarako.

Dirulaguntzen onuradunen baldintza espezifikoak kontuan hartuta (batez ere, baliabide gutxi dituzten herritarrak, 15.000 euro inguru inbertitzeko konpromisoa hartzeko beharrea egongo direnak, nahiz eta beren urteko diru-sarrerak ez diren kopuru horretara iristen), kasu berezitat jo zen, eta, ondorioz, baliabide ekonomiko jakin batzuk izan ahal izateko mekanismo bat ezarri behar izan zen, diruzaintza-arazorik izan ez zezaten lan-betebeharrak betetzeko (eta, ondorioz, horiek ordaintzeko) dataren eta emandako dirulaguntza jasotzeko egunaren artean.

Salbuespeneko egoeratzat jo zen eta, horregatik, EAEONALen 49.11. artikuluan xedatutakoa aplikatu zen: «...Salbuespenetan, kopuru batzuk aurreratuta ordaindu ahal izango dira, hau da, justifikazioa aurkeztu baino lehen ere ordaindu ahal izango dira, finantzaketa hori beharrezkoa baldin bada dirulaguntzaren helburu diren jarduerak aurrera eramateko...».

Biocruces eta Biodonostia. Gailu medikoak eta teknologia sanitarioak baliozkotzea eta frogatzea

A3 gabezia

Aurrerakinak beharrezkoak dira horien xedea eragile zientifiko-teknologikoak direlako, eta ez enpresak. Haiek alde aurreko finantzaketa behar dute diruz lagundutako jarduketak gauzatu ahal izateko. Erakunde onuradunak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira (Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Onura Publikoko Elkarte deklaratu zuten 2014ko abenduan, eta Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua ere irabazi-asmorik gabeko elkarte da). Horiek alde aurretik finantzaketa behar dute, eta EAEONALen 49.11 artikuluan eta 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 34.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie. Honela dio: «Ordainketa aurreratuak ere egin ahal izango dira, justifikatu aurretik ere funtsak eman ahal izateko, dirulaguntzari dagozkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko den finantzaketa gisa. Aukera hori eta bermeen araubidea berariaz jaso beharko dira dirulaguntza arautzen duen araudian».

A6 gabezia

Biodonostia Osasun Ikerketako Institutu Elkarte

Goldwins Auditores enpresak sinatutako gastu-justifikazioari buruzko txosten bereziak honako hau dio: «Ezin izan ditugu abenduko gizarte-aseguruak kontuan hartu, txosten hau egin den datan ez baitira aurkeztu». Elkarteak alegatu du Medtech 2018 ekimenari dagokion gastuak justifikatzeko txostena egin eta aurkeztu zenean, 2019ko urtarrilaren 7an, 2018ko abenduko gizarte-aseguruak ez zeudela aurkeztuta, eta, beraz, ezin izan zirela egiaztatu.

Auditoreek txosteneko 6. atalean aipatutakoari dagokionez, «ezin izan dugu egiaztatu Osakidetzako langile inputatuen gizarte-segurantzaren banakako kostua», institutuak hau alegatzen du: hasierako justifikazioan, Donostialdeko ESIko zuzendaritza ekonomikoaren ziurtagiri bat ere erantsi zen; ziurtagiri horretan, Osakidetzako langileen nominen ordainketak ziurtatzen ziren (ordu-kostua inputatuta aipatutako justifikazioan). Horrez gain, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren dokumentu bat ere erantsi zen, Osakidetzako Gizarte Segurantzari ordaintzen dion hileko kuota finkoa zehazten duena, Euskal Osasun Zerbitzuaren kuotak arautzen dituen Hitzarmeneko bederatzigarren baldintzaren arabera (Euskal Osasun Zerbitzuak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren artean sinatu zen). Halaber, Osakidetzak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen ziurtagiria erantsi zen, abenduaren 10ekoa.

Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua

Medtech ekimenaren justifikazio-kontuari buruz Zubizarreta enpresako auditoreek eginiko berrikuspen-txostenak, 5. apartatuan, helmenean aurkitutako mugak zehazten ditu:

«Deskargu ekonomikoan 175.777,80 euro inputatu dira, Osakidetzako langile ikertzaileen gastuari dagozkionak.

Erakundeak Osakidetzako langileen orduko kostua kalkulatu du, erreferentzia gisa hartuta Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 14ko 8/2018 Jarraibidea, 2018rako eta nominan aplikatzekoa. Zenbateko horiei dagokienez, ez dira eskura eduki nominak, ez gizarte-aseguruak, ez Kotizazio Datuen Txostenak, nahiz eta horiek inputatutako orduko kostuaren kalkulua kontrastatzeko bidea emango luketen».

Elkarteak alegatu du Osakidetzako langileen banakako kostuak aurkezteko, aurkeztu ahal izanda ere, denbora-tarte luzea behar zukeela, Medtech dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea baino luzeagoa. Hori dela eta, Erakundeak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Instrukzio batean oinarritutako kostuak aurkeztea erabaki zuen, nahiz eta horiekin langile-kostu orokorrak bakarrik ebatz zitezkeen, eta ez banakakoak.

«Deskargu ekonomikoan 8.441,60 euro inputatu dira, Bizkaiko Biocruces Osasun Ikerketako Institutuko langileak ez diren ikertzaileen gastuari dagozkionak. Ez da izan ez nominarik, ez gizarte-asegururik, ez Kotizazio Datuen Txostenik, ezta inputatutako orduko kostuaren kalkulua kontrastatzeko aukera emango ligukeen bestelako dokumentaziorik ere».

Erakundeak alegatu du Medtech ekimenaren gastuen justifikazio-kontua berrikusteko txostena egin zen egunean ez zeudela eskura orduko kostua inputatzen zaion BIOEFeko pertsonari zegozkion hilabete guztietako gizarte-aseguruak.

«Ez dira eskura eduki BIOCRUCES BIZKAIA OSASUN IKERKETAKO INSTITUTU ELKARTEKO langileen 2018ko urria eta abendua bitarteko Langileen Izenen Zerrendaren agiriak (lehengo TC2), eta nominen bidez egiaztatu dira zenbateko horiek».

Elkarteak alegatu du Medtech ekimenaren gastuen justifikazio-kontua berrikusteko txostena egin zen egunean ez zeudela eskura Biocruces Bizkaia elkarteko langileen hilabete guztietako gizarte-aseguruak.

Añanako Kuadrilla. Micaela Portilla eskola

A3 gabezia

Ordainketa-erregimena diruz lagundutako jardueraren berezitasunaren arabera da, duela zenbait urtetik martxan dagoen eskola-lantegia baita.

Zuzeneko dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoetan sartzea

Dirulaguntzen Plan Estrategikoak urte hasieran argitaratzen dira, urte osorako indarraldiarekin, eta Sail bakoitzak dirulaguntzen arloan dituen beharren alde aurreko ebaluaziotik sortzen dira. Hala ere, zuzeneko laguntzak ohi kanpokoak eta koiunturalak dira; denborazkotasunari dagokionez, askotan, gerora sortutako edo planifikatzen zailak diren beharretatik eratortzen dira, eta, beraz, ez da arrazoizkotzat jotzen plan horiek aldatzea, urte hasieran nekez zenbatetsi daitezkeen edo ohiz kanpokoak diren jarduerak sartzeko.

LEHIAREN MENDEKO DIRULAGUNTZAK

3.3.4

Doktorego industrialak egiteko eta EAEn ikertzaileak sartzeko laguntzak. Bikaintek Programa

B2 gabezia

Bikaintek-ek industria-ikerketako proiektuak laguntzen ditu (beraz, oraindik merkatutik urrun edo aplikatzeko aukeratik urrun daudenak) industria-doktore eta -doktoregaiak kontratatuz.

